

itsasondo^{2.0}

Herriko Aldizkaria (((23. zk))) Urtarrila-Martxoa 2014



Itsasondo, haurren herria

Asier Arbilla: Itsasondoko sukaldari aparta
Ibilbidea: Segura-Zerain-Segura
2014 urtean ere Itsasondo ekinez egina aurrera!



Beste urte bat igaro da, eta ziztu bizian igaro den ustea daukagu. Konturatu gabe berriz ere urtearen balorazioa egin eta urte berri-rako asmoen zerrendak osatzeko unea iritsi da. Beste behin, kirola egingo dugula, hizkuntzak ikasiko ditugula eta ikastaroekin apun-tazarekin bat dieta egiteko promesa egingo diogu gure buruari.

Itsasondo 2.0 aldizkariarentzat ere urte garrantzitsua izan da aurtengoa, itxura aldaketa bat egin diogu formatu txikira pasatuz eta 20. alea kalera-tzen genuela baliatuz, orain arteko partaide guztien artean festa txiki bat egin genuen; eta aurrera begira ere egitasmo eta proiektuak ez zaizkigu falta.

23. ale hau aurkezteko unea iritsi da. Oraingoa ere edukiz beteta dator, udaleko berriak, ordenantza fiskal berriak, eskatutako eta lortutako diru-laguntzak, udal erabakiak... Haur-eskolatik, berriz, haurraren autonomia izango dugu hizpide. Bestetik, Itsasondo haurren herria proiektuak eginiko pausoak ere izango ditugu irakurgai. Udaletxeko lanak ere amaitu ditugu, eta kultur gune berriaren aurkezpena egin digute. Asier Arbilla sukaldari itsasondarraren bizipenak ere interesekoak gertatuko zaizkizuela ziur gaude. Parte-hartze prozesutik sortutako lan taldeek ere urtean zehar egi-nikoa aurkeztu digute; lan bikaina egiten ari direlakoan gaude, animoak bi-dali nahi dizkiegu hemendik. Kultur alorrari dagokionez, ekintzaz beteriko egunak izan ditugu: talo ikastaroa, antzerkia, talo festa, mintzodromoa, kantu afaria... Gainera, itsasondarrak zoriondu nahi ditugu oso arrakastatsuak izan direlako; ho-rrelako erantzunarekin, ekintzak prestatzeak poza ematen du.

Urteko hitza zein izan den galdetzen badigute, dudarik gabe "KRISIA" hitza etortzen zaigu denori burura. Hainbat herritarrentzat urte gogorra izan dela ezin ukatu. Gure nahia da argitasuna ikusten hasi gaitezela eta herritarren elkartasun eta la-guntza keinuak ugaritu daitezela, ahal dugun neu-rrian elkartasuna saretzen joan gaitezela; sarri gehiago jasotzen du ematen duenak jasotzen due-nak baino. Urte berri on eta oparoa desio dizuegu. Zuen ametsak jarraitu eta bete daitezela!



DOINUA: Bizitza osoa borroka baten (Iriarena-ren bariantea)

Urteko azken ale honetan eskolarekin hasita: Barandiaran museora ta Sasietara bisita, edo, bestela, Segura-Zerain joan-etorriko zita herriko Baratz lehiaketari bere lanean utzita.

Udaletxeko inaugurapen berri batzuek aipagai: Españiako bandera eta wegune orria ere bai, eta Guraso Elkartearen eskaintza ez da abaztu nahi: gaztain erreak ta sagardoa, ondoren lotara lasai!

Asier Arbilla sukaldariak errezeta eta eltze, Argentinako bizikletekin lokatza aurre ta atze, Mintzalaguna proiektuaren bide zabal, pauso luze. Euskara Eguna biburtu zaigu lore anitzen baratze

Aurkibidea

- 03-06. **Udaleko berriak**
- 07. **Oria ibaia**
- 08-09. **Eskola:** Sasieta eta Barandiaran museora bisitaldia
- 10. **Haurreskola:** Autonomiaz hitz egiten...
- 11. **Aranzadi:** Itsasondoko herri-inguruko baratzeen II. lehiaketa
- 12-13. **Agenda 21:** 2014 urtean ere Itsasondo ekinez egina aurrera!
- 14-17. **Elkarriketa:** Asier Arbilla
- 18-19. **Gazteria:** Itsasondo haurren herria
- 20. **Gazte asanblada:** Azaroak 25
- 21. **Kale inkesta**
- 22. **Ongizatea**
- 23. **Informatika:** Cyberbulling-a teknologiaren erruz sortu al da?
- 24-25. **Ibilbidea:** Segura-Zerain-Segura
- 26. **Guraso elkarte**
- 27-29. **Hemeroteka**
- 30. **Lorezaintza eta errezeta**
- 31. **Liburuaren txokoa**
- 32. **Oharrak. Kultur agenda**

Sarrerako bertsoak

Udal erabakiak

Hauek izan dira udalak azken hilabeteetan egin dituen batzarretan tratatu eta erabakitako gai garrantzitsuenak:



Ordenantza fiskalen aldaketa

Urriaren 28an egindako batzarrean, datoren urtean udalak kobratuko dituen tasa eta zergen tarifak izango dituen aldaketak erabaki ziren. Igoerak erabakitzerakoan, urtean zehar izandako Balio gaineko indizearen igoera aplikatzea erabaki da, zabor biltza zerbitzuko tasa eta ibilgailuenean ezik.

Aldaketa izango dutenak hauek dira: Hilerriko zerbitzu eta emakida tasa, Ur hornidura zerbitzuko tasa, lbi en tasa eta aparkamendu tasak guztizko 0,7ko igoera izango dute.

Zabor biltza zerbitzuko tasak %8ko igoera izango dute, Sasieta Mankomunitateak udalei ezartzea aurreikusten duen igoera bera.

Trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zergaren tarifak ere 0,7ko igoera izango dute, 14 zalditik gorako ibilgailuek igoera handiagoa izango dute, %5a, 16 zalditik gora %7,5 eta 20 zalditik gora %10.

Ondasun Higiezinaren gaineko zergaren kasuan ez da igoerarik izango, baina hutsik dauden etxebizitzaren kasuan, 2012an onartutako %50eko erretegia mantendu egingo da.

Azaroaren 13an egindako batzarrean Emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako nazioarteko egunerako Bildu tadeak aurkeztutako adierazpen proposamena onartu da.

Batzar berean udalean indarrean dagoen udal tasak ordaintzeko laguntza ekonomikoaren ordenantza informazioa etxetara bidaltzea erabaki zen eta azaroaren 25ean egindako batzarrean ordenantza eranskinak aldatzea erabaki da.

Itsasondoko udalaren euskeraren erabileraren normalizatzeko plana behin behinean onartu zen azaroaren 25ean.

Beste zenbait erabaki

Nagusia kaleko 7. Zenbakian 2. pisuan hutsik zegoen etxebizitza errentan emateko tramiteak egitea erabaki zen, eta 3 pertsonen eskariak jaso dira.

3. hiruhilabeteko ur errolda eta 2013ko urteko zabor, estolderi eta ibi tasen errezi-boak prestatu eta ordaintzeko epea ireki da azaroaren 30a bitarte.

Arbelaitz elkarteari pintxo poteoa egiteko herriko plazan iraila eta urrian txoznak jartzeko baimena eman zitzaion.

Itturi txiki elkarteari udaletxean lokal bat erabiltzeko baimena eman zaio.

Ermintza elkarteari ehiz postuen zozketa lbaiondo industrialdean egiteko baimena eman zaio.

Iberdrolari, San Juango postea lekuz aldatzeko baimena eman zaio.

Euskal Fondoari 1200 eurotako laguntza eman zaio El Salvador-eko komunitate batean ur hornidura eta saneamentu sareak ezartzeko.

Sasieta Mankomunitateari, aparkalekuan baskula jartzeko baimena eman zaio. Obra txikiak egiteko jasotako baimenak onartu dira, guztira lau izan dira.

Bizi Nahi jubilatuta elkarteari dirulaguntza eman zaio jubilatuta eguna antolatzeko.

Bake Epaila titular eta ordekoaren izendapenerako proposamenak bideratu ziren eta Goi Mailako Epaitegiak beste 4 urtetarako Maite Riaño izendatu du Itsasondoko Bake Epaila bezala.

Jai eguna izendatu da 2014ko irailaren 19a.

Dicastillo-Itsaso linea elektrikoaren aurkako alegazioak aurkeztea erabaki da.

Telenor enpresari, udal eraikinak haririk gabeko kablearen bidez konektatzeko egin beharreko lanak esleitu zaizkio. Areti **Gkika** alkate ohiaren dimisioaren ondoren udalean hutsik zegoen zinegotzi kargua betetzeko tramiteei hasiera eman zaie.

Liztor kabi bat agertu zen Urkia inguruan eta udal langileek hura kentzeko tramiteak burutu dituzte.

Buzoi berria udaletzeko plazan

Herritarrek beren kartak botatzeko postontzi berria dute, udaletxearen aurreko plazan kokaturik geratu da.

Itsasondoko mapa

Duela 7 urte inguru egindako Itsasondoko maparen ale dextente geratzen dira udaletxean. Horieta lealek jasotzeko interesatuek udaletxean eskuratu ahal izango dituztela adierazten zaie.

Eskatutako dirulaguntza berriak

Eskola Agenda 21eko aholkularitza lanak finantzatzeko dirulaguntza eskatu da.

Ingurune Naturala eta Landa eremuaren konterbatzio lanetarako 2013-2015 planerako dirulaguntza eskatu da.

Irisgarritasun plana berritzeko laguntza eskatu da Eusko Jaurlaritzara.

Foru Aldundiari Tokiko energiaren aurrezpena eta eraginkortasun energetikoaren programan egindako deialdian Agarreko Argiteri Publikoa hobetzeko laguntza eskatu zaio.

Herri bideetan 2013ko negu eta udaberrian izandako euriteen ondorioz Itsasondon gertatutako luiziak konpontzeko laguntza eskatu zaio Foru Aldundiari. Azaroaren 19an Enplegua bultzatzeko Aldundiak 2 Foru Arau berri onartu ditu, bat, langileen kontratazioa finantzatzeko eta bestea, Tokiko inbertsioak bultzatzeko. Bietarako laguntza eskatu da. Tokiko inbertsioak bultzatzeko programan "Toki goxo ingurua birgaitzeko" laguntza eskatu da.

Jasotako dirulaguntzen informazioa

Enplegua bultzatzeko Aldundiak uztailaren 23an egindako deialdia aprobetxatuz, langile bat kontratatatzeko laguntza eskatu eta lortu da. Deialdia egin ondoren, 8 pertsonen eskariak jaso dira. Hautaketa hil honetan amaituko denez, langile berria urtarilaren 1ean hasiko da lanean "Herri-lan eta instalazioen mantenimendu" programan.

Euskal Energia Elkarrekin, Nagusia 7ko 1 eta 2. Solairuetako etxebizitzaren leihoak aldatzeko 3043 eurotako laguntza eman du.

Bidegorriaren obra informazio publikoa

Gipuzkoako Foru Aldundiko abenduaren 17ko aldirikariaren jendaurrean jarri da Itsasondo-Ordizia bizikleta eta oinezkoen bideko proiektua eta obra burutzeko okupatu beharreko ondasunen zerrenda.

Buzoneaketa lanetarako lan poltsa

Buzoneaketa lanak egiteko lan poltsa osatzeko 7 pertsonen eskariak jaso direnez, lan poltsa osatuta geratu da.■

Itsasondoko kultur-gunearen inaugurazio eguna!


A berduak 13an, bertaratu ginen 35 lagunek, kultur-gunea estreinatzeko aukera izan genuen. Kultur-gune hau, udaletxeko 1go. solairuan dago kokatua eta pantaila, proiektore, soinu-ekipo eta esnezatokiaz hornitua dago. Bertan 60 lagunek, antzerki, pelikula, hitzaldi etab... ikusi eta entzuteko gune aproposa dute. Gune hau, herriko beste eraikin publikoak bezala, herritarrentzat da. Beraz, edozein herritarrek, baimena aurretik eskatuta, gela hau erabiltzeko aukera izango du.

18:00tan hasi eta lehenengo azken bi urteetan burutu den parte-hartze prozesuaren emaitzak eta sortu diren lan taldeen nondik norakoen berri izan genuen; martxan dauden hiru lan taldeek biltzeko duten maiztasuna eta antola-

keta, landu dituzten gaiak eta etorkizunerako esku artean lantzeko dituzten gaiak.

Ondoren herriko webgunearen, www.itsasondo.net, "aurpegia" berria ezagutu genuen. Edukiak eta batez ere itxura eguneratu zaizkio eta askoz erakargarri, malgu, praktiko, eta nabigatzeko errazagoa egin da. Herriko talde eragileek beren txokoa izan dezaten ere atal berri bat sortu da.

Eta bukatzeko, ikus-entzunezko gunearen ondoan dagoen gelan, etorkizuneko proiektu eta ideiak gauatzeko libre geratu den gelan, askaritxo arin batekin eta bertan izandako 1go. inpresioekin agurra eman genion udaletxeko obra guztiz osaturik eta bukatutik uzten duen 1go. solairuari. ■



Mugi txartela

Mugi sistema, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak garraio publikoan martxan jarritako tarifa-sistema, bateratu da. Sistema honek aukera ematen du garraio publiko guztietan Mugi txartelarekin bidaiatzeko. Mugi txartela erabiltzeak abantaila asko eskaintzen ditu, esaterako, lehengo bidaiatik %45eko deskontua eskaintzen du eta zenbat eta gehiago erabili garraio publikoa, orduan eta merkeagoa da. Bestetik, familia ugariak, 25 urtetik beherako gazteek, 65 urtetik gorakoek eta %65ko edo gehiagoko ezintasuna dutenek hoberi osagarriak jaso ditzakete Mugi txartelarekin.

Mugi txartelak Gipuzkoako garraio publikoaren ohiko erabiltzaileentzat abantaila nabarmenak dituela jakitun izanik, eta Itsasondoko txartela eskuratzeko aukerarik ez zegoela ikusirik, Itsasondoko udalak informazio gune bat ireki du.



Mugi txartelen eskaera posta arruntaz egin nahi duenak ondorengo pausoak jarraitu behar ditu:

1. 5 euro sartu behar dira (txartelaren prezioa) KUTXako kontu honetan: 2095-5381-11-1076343440. Adieraz ezazu argi, ordainketaren erreferentzia, zure IZENA, ABIZENAK eta NA. Hori egin ezean, eskaera atzeratu egin daiteke. Eskatzen duzun txartel bakoitzeko diru sarrera bat egin behar duzu.
2. Udaletxean eskaera orria jaso. Eskaera orriko eremu guztiak dira bete beharrekoak.
3. Eskaera orria, ordainketa agiriarekin eta eskatzen den txartel motaren arabera aurkeztu behar diren dokumentu guztiak, posta arruntaz, ondorengo helbidera bidali behar dira:

Posta kutxatila 10,
20.130 Urnieta.

Txartela 10 egunetan posta arruntez etxean jasoko duzue. ■

Itsasondoko Udalaren webgune berria

Itsasondoko Udalak bere webgunea berritu du. Aurreko webguneak urte dezente zituen eta nahiz eta erabilgarria izan, denboraren poderioz zaharkitua gelditzen ari zen, forma eta edukietan.

Webgunearen berrikuntzaren bidez helburu hauek lortu nahi genituen:

- Segurtasun zulo eta funtzionalitate arazoz jositako programa informatikoa ordezkatzea: programa informatikoa, gizakiak egindako asmakizun askoren moduan, zaharkitu eta desfasatuta gelditzen dira denborarekin. Gure webgune zaharraren oinarri informatikoa hori gertatu zitzaion urte dezentez zerbitzua eman ondoren. Webgune berria Drupal software librearen azken bertsioan oinarritzen da eta horrek aukera ugari ematen ditu etorkizunean funtzionalitate berriak garatzen jarraitzeko.
- Informazioa modu argiago eta erabilgarriagoan antolatzea: berebiziko garrantzia dauka herriari informazioa zabaltzeko erabiltzen den tresna hau modu atsegina eta ulerterrazean antolatzea.
- Herriarren parte-hartzea bultzatzea: herriaren kudeaketa herriarren parte-hartzea bultzatzea izan da Itsasondoko Udalaren azken urteotako apustua. Webgune berriak ere horretan lagundu beharko du, bi norabide-tan: alde batetik, informazioa zabaltzen (Udalaren kudeaketa zerikusia duten gaiak eta baita herribizitzan jasotako gertakizunak eta ospakizunak ere); eta bestetik, herriarrei Udalera eta herri osora iritziak helarazten lagunduz (inekastak, iradokizunak eta kexak, udalaren twitter kontua, etab).

Lehen esan dugun bezala, webgunearen egitura sinplifikatzen eta modernizatzen saiatu gara. Informazioa ahalik eta modu sinpleenean antolatzen saiatu gara, errepikatutako aukera eta informazioa kenduz. Webgunearen nabigazioa eskuineko zutabean dagoen menuaren bidez egiten da. Menu hori lau atal nagusitan banatu dugu:

- Udala. Udal kudeaketaren informazioa, ondorengo azpi-atal hauetan banatuta: aurrekontua, hiri-antolamendua, laguntzak, ordenantzak, barne-antolaketa, kontratatzailearen profila eta parte hartzea.
- Udalerria. Herriko informazioa, praktikoa eta teorikoa, herritarrentzat eta kanpotarrentzat. Besteak beste, herriaren kokapena eta historia, mapak, herriko enpresa eta zerbitzuen direktorioa, auzo eta baserrien zerrenda...
- Itsasondo 2.0. Herri-bizitzarekin lotura. Atal honetan herriko agenda eguneratua topatuko duzue, era guztietako albiste interesgarriak, herrian emandako ospakizun eta gertaera ezberdinen argazki bildumak eta nola ez, Itsasondo 2.0 aldizkaria PDF formatuan, ale zaharren artxibategi eta guzti.
- Herriarren txokoa. Atal honetan herriko eragileen webguneen estekak sartuko ditugu. Momentu honetan bi besterik ez daude baina espero dugu etorkizunean gehiago izatea...



Eskuineko partean, berriz, bost lasterbide handi eta politiek oinarritzko hainbat zerbitzutara eramango gaituzte: herriko telefono interesgarriak, hondakinen bilketaren argibideak, "Itsasondo 2.0" herri aldizkariaren artxibategia, udalari kexa eta iradokizunak helarazteko formularioa eta on-line egin daitezkeen hainbat zerbitzu telematikoa. Eta gaurkoz nahikoa da. Orain zuen txanda da webgunea ezagutu eta erabiltzen hasteko, webgune bat ez baita ezer erabiltzailerik gabe. ■



Udalak kudeaturiko langabeen lan-poltsa

Udalak, langabezian dauden herritarrei laguntzeko asmoarekin, lan poltsa berri bat sortuko du eta zuen burua lanerako eskaini nahi duzuen herritarrok, egitasmo honetan parte har dezakezue izen-emate orria betez. Udalak bi-tartekari lana baino ez du egingo, herriko langabeen poltsa honetan izena eman duten pertsonen datuak herrian dauden enpresetara bidaliz, udaletxera langile bila gerturatzen denari eskainiz eta baita beste zenbait erakunde zein enpresetatik egi-ten diren edo egin behar diren deialdien informazioa jarraituz.

Horrela Udalak informazioa ematea besterik ez duela egingo garbi utzi nahi dugu, eta hortik aurrera sor daitezkeen elkarriz-ketak edo lan harremanak, Udalaren erantzunkizunetatik kanpo geldituko dira.

Baldintza bakarra, herrian erroldaturik egotea da. Interesa-turik bazaude, udaletxean eskuragarri izango duzu bete beha-rrako fitxa (azpian agertzen den fitxa eredu).

Langabeen lan-poltsarako fitxa

IZEN-ABIZENAK

NOMBRE - APELLIDOS

ADINA

EDAD

HELBIDEA

DIRECCIÓN

E-MAILA

E-Mail

TELEFONOA/K

TELÉFONO/S

IKASKETAK

ESTUDIOS

EUSKARA MAILA

NIVEL DE EUSKERA

☐ HANDIA

ALTO

☐ ERTAINA

MEDIO

☐ BAXUA

BAJO

☐ EZ DAKIT

NO SE EUSKERA

LANBIDEN IZENA EMANDAKO EGUNA

FECHA DE ALTA EN LANBIDE

LANEKO ESPERIENTZIA (KURRIKULUM-A AURKEZTU)

EXPERIENCIA LABORAL (PRESENTAR CURRÍCULUM)

ZEIN LAN ARLOTAN LAN EGITEKO PREST ZAUDE

SECTOR EN EL QUE TE GUSTARÍA TRABAJAR

OHARRA EDO BESTELAKO INFORMAZIOA

NOTA O INFORMACIÓN ADICIONAL

*Aitorpena: Datuak babesteari buruzko araudiak xedatutakoa kontuan hartuta Itsasondoko udalari baimena ematen diot nire datu pertsonal hauen tratamendua egiteko eta datuak jaso eta berak egokitzat jotzen dituen enpresetara bidaltzeko. Zentzu horretan Udalak soilik informazioaren berri emango die haiei. Sor daitezkeen beste egoera guztiak, Udalaren erantzunkizun guztietatik kanpo egongo dira.

Emandako baimena aldatzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eta egoki irudituz gero, emandako baimena ezeztatzeko eskubi-dea izango dut.

Goierriko ibai ertzetako hondakinak jasotzeko txostena

Goierriko ibai ertzetako hondakinak jasotzeko proposamenean igarri bezala, uztailleko lehen hiru asteetan, Goroldi taldeko (Grupo Gurea) bost pertsonak osaturiko taldeak, Oria ibai ertzean utzitako hondakinak bildu dituzte.



Zehazki, uztailaren 1etik 5era bitartean, Beasaingo anbulategi inguruko zubitik trenbideko zubi ingurura arte (Igartzeta) garbitu da. Ibai zati honek kilometro bat inguru du, eta bertan, guztira 2.000 kg hondakin jaso dira.

Uztailleko bigarren eta hirugarren asteetan, Igartzeta inguruan zentratu da lana, lehenago aipaturiko trenbideko zubitik kiroldegi inguruan dagoen zubiarte. Ibai zati honek lehen astean egindako zatiak baino hedadura txikiagoa duen arren (700m), jasotako hondakinen bolumena handiagoa izan da, eta ibairako sarbidea zailagoa. Bertan 2.920 kg bildu dira.

Uztailaren azken astean (laugarren astea), lanak Beasain herriaren inguruko ibai ertzetan zentratu dira. Honekin guztiarekin, Beasain udalerriko Oria ibaiaren garbiketa lanak bukatutzat eman dira. Ibai zati honek 900m inguru dauzka, eta bertan, guztira 1.500 kg hondakin jaso dira.

Irailean eta urrian egindako lanak

Oria ibaia Goierri aldean garbitzeko bigarren fase honetan, irailean eta urrian egindako lanak bereizi behar ditugu. Irailari dagokionez, Goroldiko lan taldea garbitzen aritu zen hilaren 9tik 27ra bitartean. Hiru aste horietan ibaia garbitzeari ekin zitzaion Ordizia, Itsasondo eta Ormaiztegi udalerrien parean.

Zehatzago esanda, irailaren 9tik 13ra bitartean, batez ere, Ordizia udalerrian lan egin zen, Itsasondo udalerrian ere lan batzuk egin ziren arren. Ordiziako lanak Beasain udalerriarekiko mugan hasi ziren, eta handik aurrera herri gunean barneratuz joan ziren. Ereku horretan zaborraren bilketa geldiarazi egin zela nabarmendu behar da, Ordiziako biztanleak inguru horretan auzolanean egitekoak zituzten garbitze-lanak zirela eta. Nolanahi ere, Ordizia udalerriko garbiketa, gutxi gorabehera, 3.000m luze hedatu zen ibai-zati horretan. Guztira, Ordizian bildutako zabor-kantitatea 810 kg-koa izan zen.

Irailaren 16tik 20ra arteko astean, lanak, batez ere, Itsasondo udalerrian egin ziren, Ordiziarekin duen mugatik hasita Jaso industrialdearen inguruetaraino. Guztira 1.200 m luze garbitu ziren eta 1.500 kg zabor bildu zen.

Irailaren 23tik 27ra bitartean, zaborra kentzeko lanak Ormaiztegin egin ziren. Udalerri honetan garbiketa egin

zen, bai Santa Luzia errekan (1.400 m-ko zati batean) bai Eztanda errekan (570 m-ko zati batean). Guztira 1.550 kg zabor bildu zen.

Urriari dagokionez, lanak hileko lehen hamabostaldira mugatu ziren. Epealdi horretan jarduketa-guneak Lazkao, Zaldibia eta Idiazabal izan ziren. Lazkaon, ibaiko garbiketa Beasaingo mugatik hasita Zubierreka auzoraino egin zen, 2.500 m-ko zati batean. Guztira 1.260 kg zabor bildu zen.

Zaldibiari dagokionez, garbitze-lanak Ordiziarekin egiten duen mugatik hasita, bertako herrigunearaino heldu ziren. Beraz, gutxi gorabehera, 2.400 m-ko ibai-zati bat garbitu zen, eta guztira 780 kg zabor bildu zen.

Azkenik, Idiazabalen, lanak herri gunean egin ziren gehienbat, eta hortik hasita, udalerriko Errota auzoraino zabaldu ziren. Beraz, gutxi gorabehera, 2.000 m-ko zati bat garbitu zen, eta guztira 780 kg zabor bildu zen. ■

Udalerria	Denbora	Pisua
Beasain	20 Egun	6420kg
Ordizia	5 Egun	810kg
Itsasondo	5 Egun	1500kg
Ormaiztegi	5 Egun	1550kg
Lazkao	4 Egun	1260kg
Zaldibia	3 Egun	780kg
Idiazabal	2 Egun	780kg
Guztira	44 Lanegun	13.100 Kg

Sasieta eta Barandiaran museora bisitaldia

Azaroaren 29an, 5 urtetik 6. mailara arteko eskolako haurrak Sasieta zabortegira eta Ataungo Barandiaran museora egin genuen bisita eta bisitaldi hau kontatzea dagokigu gaur.



Sasieta zabortegia

Lehendabizi Sasieta bulegoetara joan ginen. Aitziber eta Aiala izan ziren gure monitorea. Han, bideo baten, Sasieta zabortegiaren osaketa eta funtzionamendua nolakoak ziren azaldu ziguten.

Sasieta mankomunitatea 22 herri osatua dago-horietako bat, Itsasondo da. Beasaingo Salbatore auzoan bi mendi artean zegoen zuloa egokitu zuten zabortegi bezala eta 22 herri horietako zaborrak bertara eramaten hasi ziren. 1991. urtea zen. Ordu arte herri bakoitzak konpontzen zuen ahal zuen moduan zaborraren kontua. Garai hartan ez zen zaborra sailkatzen eta hondakin guztiak bertara eramaten ziren. Gaur egun, 22 herri hauek gain, Deba Garaitik, Tolosaldeatik eta Donostiako zati bat ere bertara eramaten dute.

Zabortegi kontrolatua denez, bertan sortzen diren lixibatuak eta gasak bildu egiten dira. Ur lixibatuak bildu eta zabortegira zuzentzen dira, han garbitu eta ibaira itzultzeko. Biltzen den gasarekin, BioSasietan, elektrizitatea sortzen dute. Hemen sortzen den elektrizitateak 3000 biztanleko herri baten argizatze beharrak asetzen ditu.

Gaur egun, 22 urte pasa eta gero, zabortegia ia baterik dago. Zati handiena klausuratuta dago eta hemen belarra agertzen da mendiko edozein lekutan bezala. Autobusez, zaborra botatzen duten lekura igo ginen eta han azaldu ziguten zaborra bota ondoren lurarekin estaltzen zela eta ondoren ondo zapaldu, leku gutxiago okupatzeko eta lurra sendo mantentzeko, kamioiak ibiltzeko moduko errepeidea eraikitzeko.

Kaioaren arazoa ere azaldu ziguten. Zabortegiaren gainean kaio asko ikusten zen eta hauek uxatzeko fugeozko tiroak jaurtitzen zituzten. Kaioen arazoa Donostialdeko zabortegia itxi zenean sortu zen. Han, janari bila ibiltzen ziren kaioak Sasietara etorri ziren. Hemen, tripa bete ondoren Arriarango urtegira joaten dira eta hor ibiltzeak jendeen artean kezka sortzen du, guk edaten dugun ura hangoa baita. Kaio hauek, ondoren, Beasain eta Olaberriko lantegi handietako teilatuak joaten dira eta han ere arazoak sortzen dira beren zirinekin teilatuak zikindu eta hondatu daitezkeelako. Aialak esan zigunez, gutxitu egin da zabortegira hurbiltzen den kaio kopurua.

Zabortegia prestatzeko, hasteko, zoruan oihail iragazkaitz bat botatzen da ur zikinak lur azpira sar ez daitezela. Zabortegia betetzen denean beste oihail batekin estaltzen da eta honen gainean lurra eta belar hazia botatzen da belarra erein dadin.

Galdera zaila egiten genien hango monitoreei: zenbat denbora gehiago iraun dezake Sasieta zabortegiak? Sasietaren iraupena, neurri handi batean, gure esku dagoela esaten ziguten. Gogoratzen zigun aurreko batean eskolan egindako tailer batean, behin eta berriz esaten zigutena: **Zaborra murriztu, berrerabili eta birziklatu**. Hori denok ondo egiten badugu, askoz zabor gutxigo joango da zabortegira eta hori ez badugu egiten, berehala bete daiteke. Beraz bada, garbi dago zer egin eta nola jokatu behar dugun.

BioSasieta ere ikusi genuen. 2001ean, zaborra usteltzean sortzen den gasa elektrizitatea sortzeko erabil zitekeela jabetuta, martxan jarri zuten. Motor handi bat gasarekin funtzionatu araziz, elektrizitatea sortzen dute.

Azkenik, Garbigunera joan ginen. Han, kontenedore handi batzuk zeuden eta zakar ontzitan botatzen ez ditugunak -handiak direlako, edota arriskuak direlako- han pilatzen ziren. Han sailkatu besterik ez dira egiten. Gero, kamioietan eramaten dituzte beste leku batzura eta ahalik eta gehien birziklatzen dira; autoen kubiertak, gure oinetakoen zoruak egiteko; egurra, dena txikitu ondoren, egur aglomeratua egiteko... Atentzioa eman zigun itxuraz ondo eta erabiltzeko moduan zeuden bulegoko eserlekuak, edota zenbat ordenagailu botata zeuden ikusteak. Askotan, **hobeto aprobetxatu daitezkeen gauzak zaborretara botatzen ditugula ikusi genuen**.

Horrela bukatu genuen Sasietako bisitaldia eta autobusa hartu eta... Ataun San Gregorio aldera.

Harantz iristerako, gure barruak hamaiketako eskatzen ari ziren eta horixe izan zen lehenengoz egin genuena. Frontoi aurrea polita da. Parke polit bat dago. Oteitzaren zaldi-giza itxurako eskultura bat, eta frontoi ederra, Zelai ize-nekoa. Gure hamaiketako, jolasak eta bazkaria hantxe egin genituen. Ordu bietan genuen hitzordua Barandiaran museora bisitatzeko eta hara zuzendu ginen.



Barandiaran museoa

Hasieran Joxe Miel Barandiarani buruz hainbat informazio eman ziguten. Museo bat berari eskaintzea berak arlo askotan: arkeologian, mitologian, euskararen inguruan... egin zituen ekarpen guztiagatik izan zela esan ziguten.

Joxe Miel 1889an jaio zen Ataunen eta ia 102 urte bizi ondoren, 1991an -Sasietan sortu zen urte berean- hil zen bere jaioterrian. Umetan gaztelaraz ez zekiela eta euskaraz egitea zigortuta zegoen eskolara joatean ze bildurrak pasatzen zituen kontatzen zigun. Hala ere, gaztelaraz eta latinez ikasi zuen, apaiztu egin zen eta Alemaniara ere ikasketak egitera joan zen. Bere irakasle batek aholkatu zion bere herriari buruz egiteko ikerketak eta ondo ikasi zuen hori; baita ere bere amak esandakoa: ez harrotzeko zerbait lortzen zutenean, sagarrondoa bezala izateko: zenbait eta sagar gehiago, ordun eta apalago. Barandiaran, 27 urterekin, eguneroko bat idazten hasi zen eta ia ia hil arte egunero idazten zuen egun horretan egindakoa. Ez zen beraz, zaila izan bere ibilbidea jakitea. Beste zerbait ere bazuen buruan Barandiaranek: Herriak emana, herriari eman. Hau da, berak egin zituen aurkikuntzak, berehala argitaratzen zituen, jende guztiak horren berri izan zezan. Bera jabetu zen baita ere, belaunaldi askotan gurasotik seme-alabetara ahoz aho pasatu ziren esaera eta jakintza asko eta asko gal-

tza zehazaz eta horiek denak bildu, idatziz jaso, eta argitaratzeko ahaleginak egin zituen. Ez da gutxi Joxe Mieli zor dioguna!

Bere langintza oparoena arkeologia arloan koka daiteke. Ataungo Jentil Baratzan, jentilen aztarnak aurkitu nahi zituen, baina Aralarrera joateko gomen datu zion ataundar zahar batek, hango kontakizunak entzuna baitzen. Aralarrera zuzendu zen bada, eta hantxe aurkitu zituen lehenengo trikuharriak. Honen berri eman ondoren, beste bi arkeologo elkartu zitzaizkion: Telesforo Aranzadi eta Enrike Eguren. Hiru hauei "Los tres tristes trogloditas" deitzen zieten. Joxe Migel trogloditarekin ados zegoen, ez ordea goibelak edo tristeak ziren kontu horrekin. Hiru gizon hauek izaugarritako aurkikuntzak egin zituzten eta Europa mailan ere aitortuak izan ziren aditu bezala eta leku askotara deitzen zieten hitzaldiak emateko.

Beste zerbait ere aipatu behar da Joxe Migelen bizitzan: 1936ean Espainian izan zen gerratea, hain zuzen ere. Berak ere alde egin beharra izan zuen, separatista bezala jotzen baitzuten. Lapurdiko Sara herrira ihes egin zuen eta han ere bere lanarekin jarraitu zuen. 17 urte geroago itzuli zen Euskal Herrira eta leku askotako unibertsitatara deitu bazieten ere, Ataunen, jaiotetxe ondoan, Lapurdiko etxeen moduko Sara etxea eraiki zuen eta hil arte han bizi izan zen bere iloba Pilarrekin batera.

Tarte honetan lan asko egin zuen. Izaugarritako dokumentu eta liburu pila argitaratu zituen eta oraindik ere bere lanak, mitologia eta arkeologi arlokoak bereziki, oinarri bezala hartzen dituzte beste ikerlariak.

Barandiaran museoaren ondoan zerrategia eta errota ere ikusi genituen. Bietan uraren indarra erabiltzen dute karpila mugitzeko eta honi erantsita dagoen ardatzaren mugimenduari esker errota harriak mugitzeko eta tartean dauden gari, edota arto aleak ehoztzeko, ondoren taloak edo ogia egiteko, errotaren kasuan, edota mugitzen den ardatzari erantsita dauden uhalak mugitzen duten zerra, egurrak moztu edo lantzeko.

Lan hau egin ahal izateko ura beharrezkoa da eta uda garaian bereziki, ibaia ur gutxirekin dagoenez gero, ezinezkoa da lan hau burutzeko. Suerte handia izan genuela esan ziguten ur asko pilatuta zegoelako eta horrela ura askatu eta errota eta zerra mugimenduan ikusi ahal izan genituen.

Bai Sasietan eta bai Ataunen, **elektritzitate edota energia sortzeko Naturak eskura jartzen dizkigun baliabide jasangarriak erabil daitzekela ikusi genuen.**

Eta horrela amaitu genuen gure bisitaldia. Gauza eta kontu berri asko ikusi genuen. Agur bero bat guzti hauek azaldu zizkiguten monitoreei! ■

Autonomiaz hitz egiten...

Haur bat heztea ez da erraza, eta askotan ez dakigu ondo ala gaizki egiten gabiltzan, kalterako ala onerako diren gure laguntzak eta ekintzak. Guk urteetan jaso dugun informazioarekin, gure ikuspuntu labur bat emateko asmoz idazten dugu oraingo honetan, eta gure haurreskolaren funtzionamenduaren pintzelada bat izan daiteke. Ea balio dizuen zuei ere zuen haurren heziketan, guri balio digun bezala.

Gaur egun, hezkuntzako alderdi ugari autonomiaren alde apustu egin du; hau da, haurrak badituela bere gaitasunak gauzak berak bakarrik egiteko. Horretarako, helduak utzi egin behar dio gaitasunok azaleratzen eta garatzen, eta aldiz, helduaren lana edo jarrera bide horretan laguntzea izango da.

Hori guztia zaila izan daiteke ulertzeko, betidanik entzun dugulako haurra dependentzia dela. Eta hala da hein batean, zeren haurrak txikitatik heldua behar du elikatzeko, sentitzeko eta bere nia erakitzeke. Haurra jaiotzen den unetik hasten da helduarekin harremanetan. Harreman hori ezinbestekoa da, haurrak ukitua, maitatua eta zaindua izan behar duelako, eta horren ondorioz, segurtasuna sentituko du. Segurtasun horretatik hasiko da bere autonomia bilatzen eta bere gaitasunak garatzen. Beraz, dependentzi horretatik autonomiaren

bila hasiko dela ulertzea garrantzitsua da; horrela, helduak hartu behar duen papera zein den ulertuko du.

Oso garrantzitsua da heldua ez aurreatzea haurraren beharretara; haurrak berak esango digu ze bide jarraitu behar dugun, entzuten badugu. Haurra gai da bere beharrak zein diren sentitzeko, eta baita adierazteko ere. Helduaren papera entzutea eta beraiek asetzea da. Haurrak entzuten dutela sentitzen duenean, bere gaitasunak martxan jartzen ditu eta esploratzen hasten da. Bere gorputzarekin zer egin dezakeen esploratzen hasten da: inork lagundu gabe zutitu egingo da, pixa eta kaka kontrolatzen hasiko da, ez erortzen ikasiko du, bakarrik jaten ikasiko du, helduak gehiagi esku hartu gabe.

Ez gara konturatzen, baina askotan gure esku hartzea gehiegizkoa izaten da. Ez dugu haurra entzuten, eta bere gaitasunak ikusi beharrean, guk erabakitzen dugu eserita jartzea, noiz lo egin behar duen, noiz eta zenbat jan behar duen, bere kriterio propioari lekuri utzi gabe. Askotan pentsatu izan dugu "laguntzeko" asmoz konponbideak ematen dizkiegula bidean topatzen dituzten eragozpenen aurrean, baina agian ez diegu uzten egoera horiek plazerez eta ahaleginaren bidez beren kabuz konpontzen.

Agian, gure txikitxoak hainbeste maite ditugulako eta aurrera egiten dutela ikusteko ilusioa dugulako, nolabaiteko presa izan dezakegu; gertatzen ari denaren gainean erantzukizuna dugula eta, batez ere, gertatzen ez denaren gainean erantzukizuna dugula senti dezakegu. Irakatsi egin behar diegula uste dugu, gizarte honetan horixe ikusi dugulako ia beti.

Orduan hasten da haurra deseroso sentitzen eta gatazkak sortzen. Blokeoak ere sortu daitezke, eta horrek ez du haurraren autonomian laguntzen, alderantziz baizik: dependentzia patologikoa sortu dezake. Haurrak ez du inongo kriterio propioarik jarraituko, eta bere baitan egon beharrean, bere nia erakitzen, kanpoan egongo da, bere benetako beharretatik deskonektatua. Helduek une jakin batean geroagoko zerbaitek, erakargarriagoa den zerbaitek erakusten dietenean, eta haurrek oraindik beren kabuz egiteko gai ez diren hori lortu nahi izaten dutenean, une horretan berez dagokiena egiten saiatzeari eta probatzeari utzi egiten diote haur batzuek.

Beraz, badira garrantzitsuak diren zenbait puntu, behin eta berriz aipatu ditugunak:

- Haur txikiek, ongizatea lortzeko, askatasuna, afektibitatea, zaintza fisikoa eta zaintza psikologikoa izateko eskubidea dute.
- Neska eta mutil txikiek badakite beren kabuz nola hazi eta nola ikasi.
- Mutil eta neska txikienek mugitzeko askatasuna behar dute osasuntsu hezteko.
- Bakoitzak bere erritmoa du.
- Haurtxoen gabeziei erreparatu beharrean, haien gaitasunei erreparatu behar diegu, baikortasunez eta lasaitasunez.
- Helduak haurraren sinesten duela eta persona gaituztat hartzen duela sentitu behar du.
- Helduak haurraren ondoan egon behar du, laguntzen, erraztasunak ematen eta prozesua ahalbidetzen, oztopatu gabe. ■



Itsasondoko herri-inguruko baratzeen II. lehiaketa

Urriaren 18an "Itsasondoko herri-inguruko baratzeen II. lehiaketa" ospatu zen.

Aldez aurreko iragarpenik egin gabe, nekazaritza ekologikoan aritzen diren pertsonen osatutako epaimahaiaren bitartez, herri-inguruko baratzeak bisitatu eta banan-banan baloratu ziren.

Baratzeen balorazioa barazkiak hazteko eredu ekologikoan oinarritu zen. Ekimen honen bitartez, Udalaren helburua da etxeko baratzeen kultura zabaltzarekin batera, eredu ekologikoa sustatzea; azken finean, eredu hori da ingurumena zein gizabanakoa gehien errespetatzen duena.

Ondoren, lehiaketarako erabilitako irizpideak adierazten dira:



Barazkien barietate kopurua

Gero eta kopuru handiagoa puntuazio altuagoa.

Gehiegizko plastikoa erabiltzea

Adibidez lurra estaltzeko, honek lurra txirotu eta emankortasuna ahultzen du.

Konposta egitea

Ez bakarrik konposterako edukiontzia izatea, baizik eta era egokian izatea, lur gainean eta honekin kontaktuan egotea.

Kanpoko espezieak izatea

Bertako barietateen gutxitzea ekartzen du.

Landare-asoziazio egokiak izatea

Artoa eta indaba adibidez. Artoa lehenago hazten da eta indaba igokariaren gidari modura funtzionatzen du. Honek, espazioa aurreztu, mantenu-lana erraztu eta landare sendo eta osasuntsuak izaten laguntzen du.

Produktu fitosanitario kimikoen erabilera

Biodibertsitatea gutxitzen dute, lurra eta ura kutsatzen dute eta gure osasunarentzako kaltegarriak izan daitezke.

Hazitegia izatea

Tokiko baliabideak aprobetxatzen dira eta bertako espezieen dibertsitatea zaintzen da. Prozesu guztia norberak egitea.

Landare-hesiak izatea

Lurraren emankortasun eta kalitatean eragiten du. Baratzeri "belar-txarren" pasua ekiditen du, gehiegizko haizea uraren-gandik babesten du eta inguruko faunarentzako faboragarria da.

Loreak izatea

Izurriteen aurkako elementu naturalak dira.

Euri-ura aprobetxatzea

Baratzaren itxura orokorra.

Baina zer esan nahi du hazkuntza ekologikoa, edo, baratze ekologikoa izateak? Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseiluaren (ENEEK) arabera, nekazaritza ekologikoa da lurraren emankortasuna eta, ekosistemen eta gizakien osasuna mantendu eta indartzen duen elikagaiak ekoizteko eredu. Prozesu ekologikoa biodibertsitatean eta lekuan lekuko zikloetan oinarritzen da, kutsadura eragingo luketen kanpo baliabideak baztertuz. Horregatik, nekazaritza ekologikoaren teknikak muzin egiten die ongarri kimiko, pestizida, genetikoki eraldaturiko organismo eta orokorrean, naturalak ez diren beste-lako gai sintetikoak.

Itsasondoko Udala baratzeei dagokienez, lehenik eta behin, txalotzekoa da baratze hauen kopuru handia, dena 40 baratze baloratu ziren. Horien artean 1go saria Rosario Arzak lortu zuen Bidegain etxeko baratzeagatik eta 2. saria Maria Urretabizkaia lortu zuen Iturburu etxeko baratzeagatik. Sariak dagokienez, lehenengoak Itsasondoko nahi duen jatetxean bi pertsonentzako bazkaria eta Goierriko Nekazal Kooperatibaren 100 eurotako gastua egiteko balea irabazi zuen. Gastuak irabazlearen beharrezko araberakoak izango dira: baratzerako lanabes, landare ekologikoa, etab. Bigarrenekoak, Itsasondoko nahi duen jatetxean bi pertsonentzako bazkaria lortu zuen. ZORIONAK ETA SEGI HORRELA! ■



2014 urtean ere ITSASONDO EKINEZ EGINA aurrera!

Pasa den Abenduaren 13an egin genuen Itsasondo Ekinez Egina ekimenetik sortutako lan-taldeek 2013 urtean egindako lanaren aurkezpen batzarra. Ekainean hasi eta 5 bilera burutu ondoren, lan talde bakoitzak martxan jarri dituen ekimenak eta esku artean dituen beste hainbat lan azaldu zituzten.

Hasieratik esan izan dugun bezala, prozesu honen helburua Itsasondon herritarren partehartzea indartzea eta Itsasondoko Udalak bere funtzionamendua herritarren parte-hartzean oinarritzea izan da, eta zuen laguntzari esker, sortu diren lan-talde hauekin lortzen ari gara.

Jakin badakizue hiru lan-talde daudela martxan, Lurralde Antolamendua edo Hirigintza, Ongizatea eta Herri Bizitza. Lan talde bakoitzak 2012-2013 urtean egin zen parte hartze prozesutik ateratako ekintza plana izan dute lan tresna eta hori abiapuntu izanda, eguneroko gaien jarraipena egiteaz gain honako lan hauek burutu dituzte.

LURRALDE ANTOLAMENDUA EDO HIRIGINTZA

Hasierako lehentasunak:

- Herri-guneko enpresak atera.
- Eskola berriaren kokapena definitu.
- Auzo-lanean herrian lantxoak egin.
- Herrian zehar ibilbideak diseinatu (baserriak, harrobi zuloak, herri mugak etab ezagutuz)
- Zuntz optikoa edo ADSL azkarra herrira ekarri.
- Frontoiko plaza antolatzea: autoen abiadura moteldu, oinezkoentzako babesak ezarri...
- Argiteria publikoan iraunkortasuna eta efizientzia aplikatzea.
- Ur galeren konponketak egin.

Bitartean martxan jarri diren beste hainbat ekimen:

- Bilera monografikoak antolatu lurralde antolamenduen inguruko oinarritzko kontzeptuak ikasteko.
- Plan orokorra garatzeko aurrekontu informalak eskatu.
- Bidegorriaren jarraipena.
- Lehen sektorerako ildoak definitu eta garatu.
- Bizikleta elektrikoak (diru laguntzak / kanpainak).
- Goiener-ekin hitzaldia.





ONGIZATEA

HERRI BIZITZA

Hasierako lehentasunak:

- **LANGANBEZIA:** Itsasondoko langabeen lan-poltsa sortu, herriko enpresek edo langile bat behar duen orok eskuragarri izan dezan.
- **ONGIZATE ZERBITZUAK:** Herriko egoeraren diagnosia egin. Bolondres zerbitzuak sustatu eta herriari ongizate zerbitzuen berri eman.
- **BERDINTASUNA:** Aldundiaren Berdinbidean proiektuarekin bat egin. Martxoak 8 eta Azaroak 25eko egunak antolatzen jarraitu.
- **ETXEBIZITZA ESKUBIDEA:** Etxebizitza hutsen argazkia.
- **OSASUNA:** Herriko medikuarekin bildu, Osasun arloan Itsasondon ikusten dituen beharrak identifikatzeko.

Hasierako lehentasunak:

- **HEZKUNTZA:** Herria eta eskolaren arteko lotura sendotu.
- **KULTURA:** Herriko elkarteen sarea sustatu eta 2014 urterako egitarau erakargarria antolatu.
- **EUSKARA:** Mintzalagun esperientziak abian jarri. Euskara ikastaroak herrian ematea bultzatu, taldeen eraketa sustatu eta lagun-tzak eman.
- **HAUR, GAZTE ETA NERABEAK:** 15urtetik gorakoentzako bilgunea, Gazteleku antolatu.
- **3. ADINEKOAK:** Bizi-Nahi jubilatutako elkarrekin indartu eta herriko Jubilatutako gazteak erakarri.

Bitartean martxan jarri diren beste hainbat ekimen:

- Elikagaien banaketarako herriko bi bolondres lortu dira.
- Neguko arropa bilketa burutu da, herrian behar handiena duen jendeari banatzeko.
- Aldundiaren Berdinbidean proiektuari esker, gazteekin tratatuaren aurkako lanketa egiten hasiko gara 2014 urtean.
- Herriko langabeen-poltsa ekimena jarri da martxan.

Bitartean martxan jarri diren beste hainbat ekimen:

- **Ekainean** Herri-eguna / Gazte asanblada
- **Uztailan** Garagardo festa / Arbelaitz Elkartea
- **Abuztuan** Andra Mari jaiak / Kultura batzordea
- **Irailan** Urkiko jaietara ibilaldia / Kultura batzordea Herriko jaiak / Kultura batzordea
- **Azaroan** Tratu txarren aurkako eguna / Gazteria + Ludoteka + Gurasoak Talo ikastaroa eta Festa / Kultura batzordea Herriko eragile guztiekin 2014 urterako egutegia antolatu

2014 urteari begira, aurrea jarraitzeko asmo eta gogoz hari dira lan-talde hauek lanean. Lan-taldeak irekiak dira, ahalik eta herritar gehien biltzea eta parte-hartzea bultzatzea da gure nahia, beraz zure gustoko lan taldea aukeratu eta parte hartzera gonbidatu nahi zaitugu.

Aldizkari honekin batera Herri Bizitza lan-taldean landu den 2014 urteko egutegia banatuko dugu, bertan azalduko zaizkizu herriko zenbait egun seinalearekin batera lan-taldeak bilduko diren egunak, beraz badakizu, animatu eta parte hartu, Itsasondo guztion arteko elkarlanarekin eraikei bait dezakegu. ■



Asier Arbilla

Itsasondoko sukaldari aparta

Oso gazterik sukaldaritza munduan sartu eta orain arte izandako bizipen eta anekdotak kontatu dizkigu Asierrek elkarriketa honetan. Bertan, gure “chef” bikainaren pasarte interesgarri bezain entretenigarriak irakurriko dituzue.

Zein etxetakoa haiz, Asier?

Arbeletxen jaiotakoa naiz, eta horregatik, zein izen hobea nire jabetxeari ipintzeko, ni jaio nintzen etxearen izena baino.

Nondik datorkik sukaldaritzako zaletasuna?

Sukalderako interesa, Arguiñano telebistakoa saioekin hasi zenetik. Orduan hamar-hamaika urte neuzkan, eta sentitzen nuen sukaldaritzako gustukoa nuela.

Eta hire ikasketak?

Ikasketak hasi nituenean, nahiko garbi ikusi nuen nire bidea sukaldaritzako mundurantz joango zela, jendeak beti jan beharko baitu, eta alde horretatik, ez nion inongo mugarik ikusten.

Ikasketak Itsasondoko Herri Eskolan hasi nituen, eta ondoren Goierriko Lanbide Heziketa Eskolara joan nintzen. Kalderero ikasten hasi nintzen, eta lehenengo urtea egin nuen, baina bigarren urtea bukatu gabe utzi nuen, momentu horretan Sukaldaritzako Eskolara joatea erabaki nuelako.

Donostiako Bretxa ondoan, "El Txoko del Gourmet" Casa Armendarizaren zegoen eskola, pribatua zen, baina bi urtetako ikasturtea zen, eta publikoan aldiz, bost urte. Momentu horretan, hamabost-hamasei urte neuzkan.

Zer egiten zenuten Sukaldaritzako Eskolan?

Sukaldaritzako Eskolan klase teorikoak eta praktikak jasotzen genituen astelehenetik ostiralera, eta asteburuetan jate-txetara joaten ginen praktika gehiagoko egitera. Sukaldaritzako Eskolako klaseak 15:00etan bukatzen ziren, eta arratsaldeak jai izaten genituen.

Non egin zenituen praktikak?

Lehenengo praktikak Donostiako "Restaurante Lanziego"n egin nituen; Hotel Londresen ondoan dago. Han sukaldaritzako klaseak egiten zuten, eta bastante ondo lan egiten zen. Baina, azkeneko hiru hilabeteetan, "El Bulli" jabetxean egin nituen praktikak.

"El Bulli" jabetxean Ferran Adriarekin?

Bai, Ferran Adriarekin. Eta hara joan nintzen, Rosas-era (Girona), hamazazpi urterekin.

"El Bulli" berezia da, sukaldaritzako munduan azkeneko teknikak erabiltzen dituelako. Ferran Adriak bere garaian apustu garrantzitsua egin zuen sukaldaritzako

mota honen alde, eta gaur egun ondo ikusia badago ere, hasierako pausuak nahiko zailak izan ziren. Jabetxe honek arrakastarik handiena 2003. urtean izan zuen, baina urte hau baino lehen (1992. urtean ireki zuten), jabetxe honetara jende gutxi joaten zen, oraindik sukaldaritzako "moderno" hau onartu gabe zegoelako. 1995. urtean, lehenengo "Michelin" izarra jaso zuen, eta 1996an, ni lanera joan nintzenean, bigarren izarra eman zioten. 1997an eman zioten hirugarren izarra (maximoa).

Zerk egiten zuen berezi "El Bulli"?

Berezitasun bezala, sukaldean 50 sukaldaririk lan egiten genuen, eta ni joan nintzen udara hartan 56 egon ginen. Jantokian 64 pertsona sartzen ziren; beraz, kontuan hartu sukaldean jantokian beste jende egoten ginelako.

Bai kuriosoa...

Eta gehiago esango dizuet. "El Bulli"k arrakasta handia izan zuenean, bertan jateko urte bat edo bi itxaron behar izaten zen, beti beteta zegoelako. Baina, ni lanean egon nintzenean, egun batzuetan jantokia hutsik egoten zen eta sukaldariok berdin egoten ginen lanean.

Aipatzekoa da, "El Bulli"n bi lagunentzako bazkari prezioa 650 eurokoa zela, eta hala ere, beti beteta egoten zen.

"El Bulli"ren arrakasta zeri dago-kio?


Han lan asko egiten genuen plater berriak egiten eta gauza berriak esperimentatzen. Kontuan izan, garai hartan ez zegoela gaur eguneko baliabide teknologikorik, internet kasu, eta hornitzaileak ere gertukoak ziren (ez gaur egun bezala munduko edozein bazterretako janaria lortu dezakezula); beraz, nahiko mugatua zegoen gure aktibitatea. Horrekin esan nahi dut, orduan Ferran Adriak hartu zuen erabakia -sukaldaritzako mota honen alde apustu egiteko- meritu handikoa izan zela.

Jantokira ateratzen ziren plater guztiak kontrolatzen zituen, pentsa zenbaterainoko zorrotasuna zeukan. Plater batean hamahiru tanta ozpin bazeuden, ez zuen onartzen bat gehiago edo gutxiago egotea. Denak perfektu egon beharra zeukan.

Ferran Adria nortasun handiko sukaldaria da, eta ezinbestekoa da, lortu duen arrakasta lortzeko.

Hamazazpi urterekin etxetik kanpo?

Etxetik kanpo, Katalunian, hamazazpi ur-



Sukalderako interesa, Arguiñano telebistakoa saioekin hasi zenetik.

Katalunian, hamazazpi urterekin, pisua elkarbanatzen. Pentsatu niretzat zein intentsioak izan ziren hiru hilabete haiek, 14 kg galdu nituela.

Sukaldaritzako tradizioa egiten dugu, eta baita ere ekologikoa, zeliakoena, begetarianoa, beganoa..., eta kilometro zeroa sukaldaria ere bai.

terekin, pisua elkarbanatzen, ez zegoen mugikorrik eta jende ezberdinarekin elkarbizitzen ikasi nuen. Pentsatu niretzat zein intentsioak izan ziren hiru hilabete haiek, 14 kg galdu nituela. Egunean hamabi-hamalauro ordu lan egiten genituen, eta nik egindako platerari metro erdira begira, munduko sukaldaririk onena neukan; tentsio handiko momentuak izaten ziren.

Ama abuztuan joan zen bisitan eta harrituta geratu zen, "¿Qué te han hecho hijo?" esanaz.

Anekdotarik?

Orduan hasi ginen "espume"kin lanean (sifoila) eta oroitzen dut nola esan zidaten itsasoko ura hartzera joateko balde batekin, baina itsasoko ura olatuak harkaitzen aurka apurtu ondoren hartu behar nuela esan zidaten. Nik hasieran brometan hartu nuen, eta esaten nien, ea hura zen sukaldari berriei egiten zieten "novatada". Eta ez, gauza serioa zen, eta horrela hartu beharra izaten zen, bestela itsasoko urak harea gehiago iza-ten zuen.

Ferran Adriaz besterik?

Ferran Adria telebistan ateratzen zenean, askotan esaten du, ez daukala gidatzeko txartelik, baina ni joanda nago

Adriarekin furgoneta batean. Bere jate-xera joateko, bidegurutze batean uzten genuen gure autoa, eta han bertan, furgoneta batekin Ferran Adriak jasotzen gintuen, bere jatetxera zeuden zazpi kilometroak berarekin egiteko. Beraz, gida txartelik ez, baina gidatu bai.

Eta hiru hilabete horien ondoren?

Berriro hona etorri nintzenean, aldaketa handia sumatu nuen. "El Bulli"-n laguntzaile bezala aritu arren, maila goreneko sukaldaritzaren, eta berriro Euskal Herrira etortzean, oinarritzeko sukaldaritzaren lan egin beharra zeneukan.

Hamabost egunetan Lekeition aritu nintzen, hilabete etxean egon eta Donostiako Taberna batera joan nintzen lanera, Bar "La Plata"-ra. Pintxo taberna bat zen, eta oinarritzeko sukaldaritzaren zeukaten; ogi-tartekoak, plater konbinatuak eta pintxoak egiten nituen. Han bost-sei hilabete egon nintzen.

Orduan, Sukaldaritzaren Eskolatik deitu zidaten, "Michelin" izar bat zeukan Hotel batean lan egiteko.

Hotel batera lanera La Seu d'Urgell-era?

Hotel hartan bi urte aritu nintzen, eta nire oraingo emaztea ezagutu nuen. Maila altuko sukaldaritzaren zeukaten, eta banketeak ematen zituzten. Han sukaldari arrunt bezala aritu nintzen.

Bi urte horien ondoren?

Euskal Herrira etorri nintzen nire emaztearekin, eta Beasaingo "Castillo" Hotelean egon ginen lanean zazpi-zortzi hilabetez, eta Beasainen bizitzeko, pisu batean.

"Castillo" Hotelean sukaldaritzaren tradizionala egiten zuten, eta nahiko ondo zegoen. Han janari kantitate handiagoak erabiltzen dira, baina prezioak ere garestiagoak dira.

Oso gazterik espabilatu beharra?

Hemeretzi urterekin bizitzaren nahiko gogorra neukan, lan ordu asko, pisu batean zure bikotearekin bizitzeko, fakturak ordaintzen... sukaldaritzaren munduan oso azkar espabilatu beharra daukake. Hire edadeko beste lagun askok hogeita hamar urterekin egingo dutena, hik hemezortzirekin egiten duk.

Gero Kataluniara itzuli zineten?

Ez, ondoren izango genuenari ez dakit nola esan eskaintza bat, adar jotze bat, iruzurra..., baina Hotel "Castillo"ko ja-

beak beste hotel bat ireki zuen Zaragozan, nazional 2 errepidearen ondoan. Hirurogei langileri jana eman beharra zegoen, gosaria, bazkaria eta afaria, eta zerbitzatzen nire emaztea eta biok bakarrik, kriston marroia sartu ziguten. Labost hilabete egon ginen.

Katalunian, Seu d'Urgell-en, hotel batean lan egiteko eskaintza jaso genuen, sukaldaria eta zerbitzaria behar zituzten, eta harantz joan ginen. Handik aurrera Katalunia aldean aritu ginen lanean, eta ez gara gehiago Euskal Herrira itzuli.

Eta orain arte hotel horretan?

Ez, hotel horretaz gain, golfeko zelai batean, jatetxe batean eta Andorrako hotel batean aritu ginen lanean. Hamar bat urte pasa genituen leku horietan, eta azkenik, geure jatetxea irekitzea pentsatu genuen.

Zergatik aldaketa hori?

Krisiaren ondorioz, nazkatuta geunden jasaten genuen presioaz, esaterako azkeneko hotelean bost-sei pertsonatik bi gelditu ginen, eta hori ezinezkoa da aurrera egiteko. Kasu hauetan, arazoa ez da lana gutxitu izana, nagusi askok dirua gaizki kudeatu izana baizik. Inbertsioak egin zituzten, eta gero ezin aurre egin egoerari, eta horren ondorioak langileok pagatzen ditugu. Eta horixe izan zen arrazoi nagusia gure negozioa ipintzeko.

Eta orain zuen jatetxea?

Orain gure jatetxea daukagu. Arbeletxe du izena eta Seu d'Urgell-en dago, eta azken bi urteetan (Gabonetan egingo ditu bi urte) bertan gaude.

<http://www.arbeletxe.com/>

Eta sukaldari postua berdina izan da beti?

Azkeneko hamabi urteetan sukaldari-buru jardun dut, ondo ordaintzen dizute, baina ardurak ere handiagoak dira. Lanpostu horretarako diziplina handia behar duzu. Askotan ikusten da telebistako sukalde programa batzuetan, sukalde batek ondo funtzionatzeko behar-beharrezkoa dela talde gutzia ondo koordinatzea, eta sukaldari-buru baten egitekoa hori izaten da.

Orain, gure jatetxean, nire emaztearekin daukaten konfiantzarekin, mahaira ateratzen den gutzia nik nahi dudana izaten da, eta hori oso garrantzitsua da jatetxe batek ondo funtzionatzeko. Gure jatetxean gu biok eta beste langile bat gaude.

Zuen jatetxean zein sukaldaritzaren mota egiten duzue?

Sukaldaritzaren tradizionala egiten dugu, eta baita ere ekologikoa, zeliakoena, begetarianoa, beganoa..., eta kilometro zero sukaldaria ere bai, hau da, nire baratzaren propioa daukat, eta bertatik-bertarako produktuak erabiltzen ditugu. Catering zerbitzua ere eskaintzen dugu. Sukaldaritzaren mota hauen guztien oinarria, kalitateko produktuak erabiltzea dago, eta gezurrik gabeko sukaldaritzaren bat egitea, zure amonak egiten zuen bezalakoa, baina gaur eguneko sukaldaritzaren ekarria.

Gure jatetxean 35-45 pertsona sartzen dira, eta nahiko ondo funtzionatzen du. Jatetxea handitzeko tentazioa izan dut, baina hori ezingo nuke kontrolatu, eta orain daukagunarekin nahikoa da.

Astearteetan, asteazkenetan eta igande gauetan jai egiten dugu. Deskantsu egun horietan baratzean lanean aritzen naiz eta oso gustura, niretzat denbora pasa ona da. Gainera, nire jatetxeari balio erantsi bat ematen dio.

Non daude sukaldaritzaren tradizionala eta modernoaren mugak?

Zaila da gaur egun sukaldaritzaren tradizionala mugak non dauden jakitea. Garrantzitsua da kalitateko lehengaiak erabiltzea, eta ondoren, gaur egungo sukaldaritzak eskaintzen dituen baliabide aurreratuak erabiltzea, sukaldaritzaren tradizionalekin uztartuz.

Garrantzitsua da zure jatetxeraren jatera etortzen den pertsona hori gustura ateratzea, eta horregatik tarteka, sukaldetiki atera eta beraiekin hitz egitea gustatzen zait.

Nik askotan 16:00etan bukatzen dut sukaldean eta baratzeraren joaten naiz, eta jantokian daudenek letxugekin etortzen ikusten naute, beraiek plateraren jaten aritu direnak, alegia; hau da jendeari kilometro zero filosofia transmititzeko modua.

"Michelin" izarrak nola funtzionatzen du?

Iritzi orriak daude Interneten eta publizitate ona edo txarra jaso dezakezu. Orduan, beraien kontura edo bestela zuk abisatuta etortzen dira, baina zuk ez dakizun egun batean pertsona bat edo bi zure jatetxerara agertzen dira eta beraiek nahi dutena eskatzen dute. Batzuetan, argazkiak ere ateratzen dizkiete platerari, eta amaieran, ordaintzeko momentuan, esaten dizute Michelin-gidakoak direla.



Munduko honetan dabilen jendeak badaki nondik nora ibiltzen diren, eta jatetxean bertan ere nahiko nabarmenak dira: ondo jantzitako pertsonak, hitzik egiten ez dutenak... Normalean, jatetxeko metreak konturatzen dira, eta abisua segituan pasatzen dute.

Jatetxe guztiek ez dute nahi izaten "Michelin" izarrik, jatetxearentzat presio handia izaten delako. Kasurako, Giro-nako Rosaseko jatetxe bati eman zioten izarra, eta berak esan zuen nahiago zuela izarrik gabe egon.

Jatetxe askotan hiru hilean behin (neuk ere bai) beraien menu-karta aldatzen dute, eta menuokin diseinu berezia daukaten platerak egoten dira, diru asko balio dutenak. "Michelin" izarrek daukaten jatetxeek platerak ere aldatzen dituzte.

Etorkizunari begira zer asmo daukark?

Linea berdinean jarraitzea izango litzateke, formakuntza klaseak eman eta hartu, eta Senegaleko proiektuarekin jarraitu.

Senegaleko proiektua?

Han bezero bat daukagu, Sandro Rosell-en (F.C. Bartzelonako presidentea) oso laguna dena. Senegalen futbol akade-

mia bat daukate, eta bazkideen artean hotel bat ireki zuten eta guri proposatu ziguten bertara joateko, hotel horretako sukaldea antolatu eta bertakoei laguntza emateko. Hasieran, erokeria iruditu zitzaigun, baina orain bi urte joan ginen lehendabizikoz, zazpi egunetarako, bi lan egin eta bost deskantsatzera; baina, azkenean, zazpi egunak lanean eman genituen. Ondoren eskaintza ona egin ziguten, bidaia eta bertako lanak ordainduta.

Daukan eragozpen bakarra, denbora horretan gure jatetxea itxi beharra daukagula.

Zer egiten duzue bertan?

Bertako sukaldariak formatzen ditut, menu-karta nik aldatzen diet eta bertako mentalitatea oso ezberdina denez, beraietara egokitzen saiatzen naiz... Frantsesez hitz egiten dugu beraiekin. Han ez daukate hemen daukagun bizi estresa. Urtean hiru edo lau aldiz joaten gara, zazpi edo hamabost egunetarako eta guretzat deskonektatzeko modu bat da, baina lan asko egiten dugu.

Senegaleko hotelik onenetakoa da, eta sari asko jaso ditu, esaterako Afrikako Hotel-Spa onenarena. ■

<http://www.therhinoresort.com/es/>

3 galdera motz

Zer duk gustuko Itsasondon?

Denak ezagunak garela, herri txiki bat bezala, familia bat izango bagina bezala; kontaktu handia dago.

Zer botatzen duk faltan Itsasondon?

Herri bezala, gauzak modu berdinean egiten dira, eta dinamika aldatuko nuke, pixka bat eboluzionatuz, konplikatuko gabe.

Inoiz izan duken amets bat?

Egunero disfrutatu egiten duzunaz, eta ametsak baino hobea da errealitateak egitea. Nire bizitzan izan ditudan jomuga guztiak burutu ditut, asko kostata, baina aurrera eginez.

Itsasondo, haurren herria

Gazteria saila, burubelarri lanean ari da bai ludotekan bai gaztelekuan. Ohiko ekintzak aurrera eramateaz gain, bi proiektutan murgildu dira.

Lehen proiektua, ITSASONDO, HAURREN HERRIA da. Haurreskola, eskola, guraso elkarte eta udaletxeko suspertzaleek osatutako lan taldearen bidez, herrian bertan aurrera eramateko egitasmoa diseinatu dute. Hurrengo lefroetan azalduko dugu zehatz mehatz zertan den egitasmoa.

Itsasondo haurren herria, egitasmoa

Itsasondoko haurreskolak, eskolak, guraso elkarteak eta udaleko gazteria sailak mahai baten bueltan egindako hausnarketaren ostean, elkarlanean honako egitasmoari ekiteko ilusioa piztu da.

Zergatik egitasmo hau?

2013ko apirilean haurren parte-hartze zerbitzua (ludoteka) martxan jarri bezain pronto, koordinazio-sistema bat ezarri zen bi eragilean artean -eskola eta suspertzalea- haurrei eskaini behar zaien arreta definitu eta erakundeen arteko proiekturen bat abiatzeko asmoarekin. (lehendik ere harremana bazen).

Haurreskolak, eskolak zein haur, nerabe eta gazteen parte-hartze zerbitzuek hartzaile berberak dituzte; nahiz eta, batek hezkuntza formalean jardun eta besteak hezkuntza ez formalean. Batak zein besteak dute helburu eta bide herritarren parte hartzea; baita herri txikien biziraupena bera bermatzea ere.

Horrez gain, Itsasondo ekinez egina, parte-hartze prozesua egin zenean, honako ekintza hau proposatu zen Udal funtzionamenduan herritarren parte-hartze modu iraunkorrean txertatzeko:

Herria eta eskolaren arteko lotura bermatu, sendotu: eskola txikien egitekoa ezagutzera eman, Udaletik eskola bulatzatu, Guraso Elkartea indartu.





Zer eta zertarako:

Egitasmoaren asmoa da, “Itsasondo haurren herria” lelopean, bai eskolaren bai udalaren zerbitzuaren eskaintza aditzera ematea herritarrei zein herritik kanpokoei. Herriaren indargune gisa “saldu” nahi da 0-30 urte bitartean herriak eskaintzen dituzten aukerak. Helburua: txikitatik herriak eskaintzen dituen zerbitzu, baliabide eta eskaintza jabetzea, horiek ikusgarri eginez eta horiei balioa emanaz, bai herri barruan bai kanporantz.

Esan bezala, horretarako, haurreskolako hezitzaileek, eskolako irakasleek, guraso elkarteko kideek eta Udaleko sustatzaileek lan talde bat osatu dute eta hausnarketaren ostean, 2014rako ekintza plana ere zehaztu dute. 4 ekintza finkatu dira: lehenengoa, abendu bitarte egin dena, haurreskola, eskola eta gaztelekuari izena jartzea. Bigarrena, gure zerbitzuen berri emateko, oraindik definitu gabe dagoen komunikazio kanpaina bat egitea (abesti bat, bideo bat,...). Hirugarrena, komunikazio sare egokia sortzea zerbitzu guztien artean (barne lan bat litzateke) eta laugarreba maiatzean ospatzen den herri egunean festa bat egitea.

Aukeratu dugun lehen lana, haurreskola, eskola eta gaztelekuari izena jartzea izan da (ludotekak badu berea). Izan ere, hauek ez dute izenik eta beti ezagutu ditugu, itsasondoko haurreskola, eskola eta gaztelekua izenez. Lan talde honek, ordea, garrantzitsua ikusten du haurrek, herritarrek eta herritarrek ez direnak ere, identifikatuko duten izena izatea. Horretarako deialdia egin du herritarren artean, zerbitzu hauei izena jartzeko.

Izen batzuk jaso genituen eta erabaki ere bai, haurreskola eta herri eskola Urkipe dute izena eta gaztelekua Karreape.

Gaztelekua: berdinbidean programa

Bigarren proiektua gaztelekuko nerabeekin gauzatuko da. Itsasondoko gaztelekuk BERDINBIDEAN GIPUZKOA programan parte hartu behar du. Proiektuak 10.000 biztanletik beherako herrietan berdintasun politikak sustatzea eta indartzea bilatzen du. Gure kasuan, helburua herritarrek eta bereziki gazteek indarkeria matxistaren kontzientzia hartzea eta aurre egiteko tratu onak eta eredu baikorrak bultzatzea da (Legorreta, Zaldibi, Segura bezalako herriei batera parte hartuko dugu programa honetan). Tailer eta ekintza desberdinen bidez landuko da gai hau eta abendutik ekainera bitartean iraungo du egitasmo honek.

Gazte asanblada: gaztelekuaren erabilera asteburuan

Gazteekin ere, asteburuetan gaztelekuaren erabilera zehatzeko arautegia finkatu da. Horrela, urtariletik aurrera 16 urtetik gorako gazteak gaztelekuan bildu ahal izango dira ekintzak, bilerak egiteko.

Ludoteka eta gaztelekuko ekintzak

Astelehenetan Ainara hezitzailearekin batera, Itsasondoko 4-10 urte bitarteko haurrak Eguzki Lore ludotekan ekintza desberdinak egiten dituzte. Denetik egin dute: gailetak, errepideko arauak landu, eskulanak, mahai jolasak, plastilina tailerra, ipuin kontaketak, gabonetako apainketak... Horrez gain, ludotekan bertan dauden jostailuekin haurrek jolasteko eta ongi pasatzeko aukera izan dute. Datorren urterako ere, ekintza sorta antolatzen ari dira denen artean, haurren parte-hartzea ezinbestekoa baita eta beraiei iritzia oso kontutan hartzen da programaketa egiterako garaian. Urte berria hasi bezain pronto, urtarilaren 2an izango dute lehen ekintza egiteko aukera. Goizean, 10:30etik 12:30era ludoteka irekita egongo da eta tailer bat egiteko aukera izango da.

Gaztelekuan berriz, herriko 11-17 urteko nerabeak biltzen dira eta beraiek ere ekintza pila bat egin dituzte, guztiak ere beraiek erabakitakoak: gaztelekuaren garbiketa sakona, argazki lehiaketa, esne torradak egin, zine foruma, txiste lehiaketa, BERDINBIDEAN programako lehen ekintza gauzatu dute tailer berezi batekin... Herrira begira ere ekintzak antolatu ditugu, haurrentzako zine emanaldia eginez eta kirol eguna ospatuz. Urtarrilaren 3an berriz, gabonetako oporradien barruan irteera bat egiteko asmoa dago.

Azaroak 25, emakumeenganako indarkeriaren aurkako eguna dela eta, gazteria sailetik hainbat ekintza antolatu ziren. Ludotekan ipuin kontaketa saioa izan zen, gaztelekuan berriz, zine –forum eta txokolate jana egin zen.

Herritar guztiok Segurako udalak ekoiztu eta Farapi enpresak egin duen dokumentala ikusteko aukera izan genuen. Bertan, 36ko gerra eta ondorengo urteak bizi izan zituzten emakumeen testigantzak jasotzen dira. Jubilatutako elkarrekin bildu ziren dokumentala ikusteko eta adineko jendea eta gazteagoak ere animatu ziren dokumentala ikustera. Aurkezpena dokumentalaren egileetako batek egin zuen. Bukatu ostean, solasaldia izan zen, kafea eta pastez lagunduta.

Guraso txokoa

Neguko hotzak ere etorri zaizkigu, eta hori dela eta, Itsasondoko guraso txokoa haur eta gurasoz betetzen da. Bertan, epeltasunean haurrek haurrekin jolasteko aukera dute eta aldi berean gurasoak ere elkarrekin egoten dira eta arratsalde on bat igarotzeko aukera dute. Guraso txokoa, asteartetik igandera 16:00-19:00etara erabiltzeko aukera dago. ■

Azaroak 25

Printzesen eta erreginen aroa gainditu, eta has gaitezen sorginak eta piratak bezala jokatzeko.

Azkenaldian entzuten diren eraso sexistekin kezkatuta gaude; gizartea maldan behera doa. Zoritarrez, ia egunero entzuten ditugu genero indarkeriarekin lotutako albisteak.

Azken hamarkadan, gutxi gorabehera, 700 emakume izan dira erailak genero indarkeria dela eta. 600.000 emakume dira urtero indarkeria sexista jasaten dutenak. Hala nola, 1999 eta 2003 urteen artean 246 emakume hil ziren indarkeria sexistaren eraginez: sastatuta, kotxearekin harrapatuta, erreta, laurdenduta... Biolentzia matxista fisikoa eta mentala izan daiteke. Kolpeak, bortxaketak eta hilketak fisikoa dira; eta mehatxuak, irainak eta antzekoak, berriz, mentalak. Kontrolatzea, gutxiestea edota barregarri uztea ere biolentzia matxista da!

Asko eta asko dira indarkeria jasan duten emakumeak, eta askok laguntza eskatzen badute ere, beste askok isilean eramaten dute egoera tamalgarri hori. Beldurra izaten da ez salatzearen arrazoi nagusienetako bat, egoerak okerrera egingo duela uste izaten baitu emakumeak, sarritan. Horrela, isilean geratzea erabakitzen dute, beraien burua gutxietsiz eta beraien sinesteari ere utziz. Baina garrantzitsua da inoiz ez ahaztea emakumeok garelako geure buruaren eta gorputzaren jabe.

Illo beretik, azpimarratzekoa da emakumea inoiz ez dela genero indarkeria jasatearen erantzule. Askotan esaten da, emakumearen janzkera dela indarkeria sexista sortzen duena, baina aitzakia horrek ez du putzik ere balio! Minigona jantzi nahi baduzu, jantzi; tanga, kule-roak, kamiseta zabalak, eskoteak... nork erabaki behar du guk zer eraman soinean?

Biolentzia matxista jasan duten emakumeek egoera desberdinak bizitzen dituzte. Normalean, gizonezkoaren kontrol nahiarekin hasten da biolentzia matxista, emakumea berea dela pentsatzen baitute askok eta askok eta zer egin dezaketenean eta zer ez erabaki dezaketela uste dute. Horrela, denboraren poderioz sarritan gauzak okerrera egiten dute, baina nahiz eta kontrol hutsean geratu, emakumeak askatasuna galtzen du.

Borroka hau gizarte osoarena da, ez emakumearena bakarrik. Gure gizartean, emakumeak erakusten zaio egoera horietan bere burua biolentzia matxistaren gandik defendatzen, erasotzaileei ez erasotzen erakutsi beharrean. Gizarteak bat egin behar du borroka honetan, beraz, azaroaren 25ean plazara! ■



**la bi urte eta gero udaletxeko berrikuntzak guztiak
bukatu dira. Hori dela eta, herritarren iritzia jakin
nahiean galdera hauek planteatu ditugu.**

1. Gustatu al zaizu emaitza?
2. Zer gustatu zaizu gehien? eta gutxien?
3. Bertan dauden zerbitzuak ezagutzen al dituzu?
4. Zer erabilpen emango zenieke sortu diren espazio berriei?



Gus

- Orokorrean gustatu zait emaitza, bai.
- Fatxada oso polita gelditu da nire ustez.
- Zerbitzuak badaudela ikusten da. Haur eta guraso mugimendu handia ikusten da bertan.
- Ikastaroak, kirola egiteko gela (pilates,...) jarriko nituzke gela eta espazioak aprobetxatuz.



Maite

- Orokorrean bai.
- Beheko solairua gustatu zait gehien, oso argitsua da eta. Gutxien gustatu zaidana berriz, lurra izan da, kolorea ez zait gustatu eta irris-takorra iruditzen zait.
- Bai, ezagutzen ditut bai.
- Kultur eta kirol ikastaroak egiteko aprobetxatuko nituzke gela berriak.



Inazio

- Bai, gustatu zait emaitza.
- Asko gustatu zait, bulegoak goian jartzea eta beheran espazio desberdinak sortzea. Bana-keta hori gustatu zait.
- Zerbitzuak ongi daude.
- Kirola egiteko espazio bezala jarriko nuke gela berria.



Juan Inazio

- Bai gustatu zait.
- Lehengoarekin alderatuz, liburutegiak asko hobetu du. Kontra berriz, udaletxe barruari kolore pixka bat falta zaio, zuri askotxo iruditzen zait dagoela.
- Zerbitzuak ez ditut asko ezagutzen, naiz eta informazioa iristen zaidan.
- Helduentzako kirola egiteko aukera emango nuke espazio berrietan.

Ongizatea

Lan-poltsa berria

Ongizateko lantaldeetik, herrian langabezia pairatzen ari direnei herritik bertatik soluzioak emateko hausnarketa bat jarri zen abian, irail-lean; eta bertatik sortu da, Udalak langabe-tuentzako lan-poltsa bat egiteko ekimena. Aldizkari honetan, ekimen horren inguruko in-formazioa jaso dugu. Jakin badakigu, beste erakunde batzuk ere enpresa eta langabetuen arteko bitartekaritza lana egiten dutela, eta esfortzu horretan apaltasunez laguntzeko asmoarekin, Udalak, langabetuen datuak hartu nahi ditu, inguruan ditugun enpresetara he-larazteko. Langabezia bazaude beraz, gertu-ratu udaletxera eta bete eskabide fitxa.

Arropa bilketa herrian

Ongizateko lantaldeak proposaturik, aurreko hilean, neguko arropen bilketa bat egin zen, Itsasondon. Ekimen horren balorazioa oso baikorra da. Arropa asko jaso da, eta ia denak oso egoera onean daude, gainera. Arroparen aukeraketan herriko jostun taldeak eskaini-tako laguntza ere oso eskertzekoa da. Arropa guztiaren banaketa ahalik eta era dui-nean egiteko asmoarekin, Ordizian dagoen erroperoarekin harremanetan jarri eta bertara eraman genituen bildutako arropa guztiak. Aldi berean, gizarte zerbitzuetatik, onuradu-nen zerrenda hango arduradunen esku utzi zen, herrian behar egoeran daudenek bertatik pasatzeko aukera izan zezaten. Horregatik guztiagatik, eskerrak ekimen ho-rretan parte hartu duzuen guztioi.

Udal tasak

Udalak berriki jakinarazi duen moduan, udal tasak ordaintzeko laguntza ekonomikoak arautzen dituen ordenantza onartu du. Horren baitan, ur tasa eta hiri hondakin solidoen tasak ordaintzeko laguntza ekonomikoak ja-sotzeko aukera dago. Urteak aurrera egin duen heinean, aurtun ordaintzeke dauden zer-getan izango luke eragina araudi horrek, eta ez aurrekoetan. Informazio gehiagorako, gi-zarte zerbitzuetan galdetu dezakezu, tel. 943-881170.

Genero indarkeria

Azaroaren 25an genero indarkeriaren aldarri-kapen eguna izan dugu. Urtero, zoritxarrez, emakumezko askok pairatu beharreko indar-keria da hori. Gizartearen konpromisoa ezin-bestekoa da gurean ematen den oinarritzko giza eskubideen urraketa horren aurrean. El-kartasuna adierazteko batetik, eta, genero kultura, gizonezko eta emakumezkoen arteko ezberdintasunak sustatu eta mantentzen di-tuzten ideiak, jarrerak eta iritziak, aldatzeko, bestetik. Genero indarkeria mota ezberdine-tan aurkeztu daiteke: fisikoa, psikologikoa edo sexuala. Guztiak dira onartezinak. Horre-lako egoera baten aurrean egon zaitezkeen za-lantzarik baduzu, 016 deitu (doakoa da, eta ez mobilean ez fakturan agertzen ez den zenba-kia da) edota gizarte zerbitzuetara hurbildu. Bertan jasoko duzu konfidentzialtasun osoko harrera eta zure eskura dituzun aukeren ingu-ruko informazioa. Zure egoera salatu nahi ba-duzu edo ez, jakin behar duzu, bakarrik ez zaudela! ■

Ciberbulling-a teknologiaren erruz sortu al da?

Teknologia berriak gure bizi kalitatea hobetzen du, baina alde txarrak ere baditu.

Internet, mugikorrak, bideo kamerak, telebistak... asko hobetu dira. Jadanik, tresna hauek ez dute balio deitzeko, zerbait ikusteko edota grabatzeko; gaur egun denetik egin baitezakegu Internetari eta sare mugikorrekin esker.

Duela bost bat urte, nork pentsatuko zuen mugikor bat gai izango zela bideo bat grabatu eta momentuan bere kontaktuei pasatzeko? Bada, gaur egun posible da, Smartphone eta 3G sareei esker, mugikor batekin zerbait grabatu eta (adibidez) Whatsapp bidez bideo hori gure lagunei pasatzea.

Horrek guztiak laguntzen digu komunikazioa momentuan egiten, eta horrekin batera informazioa. Momentuan eduki dezakegu nahi dugun informazioa, eta guk nahi dugun informazioa jendearekin konpartitu dezakegu.

Gaur egun, ez da beharrezkoa ordenagailu bat Internetera konektatzeko eta informazioa bilatzeko, edota esperientziaren bat konpartitzeko; mugikorrarekin nahikoa da. Baina, teknika hau telebistetan, argazki kameretan eta erlojuetan ere hasi dira aplikatzen.

Baina, gauza guztiek bezala, teknologia hauek ere beren alde txarra dute; adibidez, ciberbulling-a.

Denok dakigu bulling-a eskolatan ematen den jazarpena dela. Bada, ciberbulling-a antzekoa da, baina kasu honetan ez dago kontaktu zuzenik, Internet bidez egiten den jazarpena baita.

Desberdintasun nabarmenena hau da: bulling-ean zuzeneko kontaktua dago pertsonen artean; baina, ciberbulling-ean ez, zeren mugikorrek edo Internetak bitartekari bezala jokatu dezake. Gainera, bortxatzailea edo akosatzailea anonimoa izan daiteke, azken datu hau izanik garrantzitsua eta kezagarria.

Badirudi modan jarri dela 12 eta 16 bitarteko umei telefono mugikorra oparitzea. Egia da, gurasoek gehienbat egiten dutela umeak kontrolatzeko eta uneoro non dauden jakiteko. Baina, telefonoa hartzen duten aurreneko momentutik ciberbulling-aren biktimak izan daitezke.

Ciberbulling egiteko baliabide asko daude, hala nola, WhatsApp, Facebook, Line, Twitter, Tuenti eta hainbat sare/chat sozialetan egin daitezkenak. Esate baterako, Facebooken eta halako sare sozialetan, perfil faltsu bat sortzearekin nahikoa da. WhatsApp, Line eta halako aplikazioetan zailagoa da, baina ez ezinezkoa. Badaude aplikazio piratak edota erdi legalak, non zure zenbakia edo izena ezkutatu dezakezun.

Hala ere, horrek ez du esan nahi gazteen artean mugikorrek erabiltzea debekatu behar denik; baizik eta arrisku batzuk daudela, eta hori guztia gutxieneko hezkuntza batekin saihestu daitekeela. ■





Segura-Zerain-Segura

Deskribapena: Ibilbidea Segurako sarreran dagoen errotondan hasiko dugu. Bidea gurutzatu eta ezkerretik goraka doan bidea hartuko dugu. Industrialdea eta oiloen granja ezkerretara utzi eta Oriamuño gainera iritsiko gara. Asfaltozko bidea jarraitu eta bidegurutze batera iritsiko gara. Bidegurutzera iritsitakoan, eskubirantz hartuko dugu. Laister, zubi txiki batera iritsiko gara. Bere azpitik igarotzen den kaltzadatik jaitsiko gara Segura herri-

raino. Kale Nagusitik jaitsiko gara eta Zeraingo Atea deitzen diotenetik aterako gara kaskotik. Erreka pasatu eta errepidea gurutzatu ondoren, arrasto zuriberdeak jarraituko ditugu Zerain herriraino. Ostatua inguratu eta gero, beheraka arrastoak jarraituko ditugu, granja batera iritsi arte. Hemen, hormigoizko bidea jarraitu beheraka eta segituan Mutiloara doan bidera iritsiko gara; eskubira hartu eta errotondora ailegatuko gara. ■



Iraupena: 2 ordu eta 35'

Ibilbidea:
Segura - Segura: ordubete eta 40'
Segura - Zerain: 30'
Zerain - Segura: 25'



01

Aizkoeta



02

Oriamuño



03

Aitzgorri



04

Segura



05

Zeraingo atea



06

Padura



07



08

Telleria



09

Izagirre



Segura

10

Gaztain jana 2013

Garaia denez, aurten ere elkartu ginen Itturri Txiki Guraso elkarteak deituta, gaztain jana egiteko, azaroaren 16an.

Eguraldiak ez zigunez lagundu, B planari ekin genion; hau da, SORPRESARI.

17:00etan elkartu ginen eskolako aterpean, eta aurretik bildutako hosto batzuekin mural bat egiteari ekin genion. Gero, dantzan hasi ginen.

19:00etan gaztainak eta txorixo pintxoak jaten hasi ginen. Hotzez, baina giro politean egon ginen han bildutakoak. Trikitilari eta guzti!

Bukatzeko, eskerrak eman nahi dizkiegu batez ere gaztainak prestatu zituztenei, dagoeneko ez daudelako guraso elkartean, eta hala ere, fin-fin lanean ibili zirelako. ESKE-
RRIK ASKO! ■



Mintzodromoa

Abenduaren 3an euskararen nazioarteko eguna zela eta, herriko plazan, mintzodromoa ospatu genuen. Bertan, urtean zehar mintzalagun taldeetan parte hartuko duten kideak elkar ezagutu ziren, eta lehenengo mintzalagun saioa burutu zuten. Eguraldia benetan hotza izan arren, herriko trikitilariak eta Kaxintane tabernako pintxoak lagunduta, giro ezin hobea izan zen.

Bestalde, gogoratu, mintza taldeak martxan izan arren, oraindik izena ematea posible dela!!! Animatu eta eman izena udaletxean!!! ■



Talo ikastaroa

Aurten, bigarren urtez, talo ikastaroa egin da Itsasondan. Azaroaren 15ean eta 22an egin genuen, Bizi Nahi elkartearen. Hamabost bat lagun elkartu gara ikastaroan: batzuk iaz ikasitakoari jarraipena eman nahian eta beste batzuk, berriak, zerotik abiatuta. Beste behin ere giro paregabea egon da, eta horrenbeste pazientzia duten irakasle prestuei gure esker ona adierazi nahiko genieke. Mundialak zarete!

Oharra: Ikastaroko unerik onena, taloak dastatzeko unea, uummmm.



Talo festa

Azaroaren 30ean, herrian dagoeneko oso gurea dugun Talo Festa izan genuen. Itsasondoarren agendetan gorritz markatuta egoten den festa izaten da hau. Eguraldiak askorik lagundu ez bazuen ere, arratsaldeko 8ak aldera taloan usainera eta berotasunera jendea zeudela taloak, hirugiharrarenak eta txokolatezkoak amaitu ere egin baitziren. Bestetik, pozgarria da herrian urtero talogile berriak ditugula ikustea. Usadioei eustea garrantzitsua da, are gehiago hain goxoak badira.



XVI Mendikleta proba arrakastatsua

7 5 txirrindulari inguruk parte hartu zuten 'Ijittu Kirol Elkarteak' antolatutako mendi bizikleta proba herrikoian. Eguraldia lagun, aurtengoan probaz gozatzeko aukera izan zuten parte-hartzaileek.

Urriaren 19an, larunbata, izan zuten hitzordua. Mendi bizikleta zaleek gozatu ederra hartzeko aukera izan zuten bidezidor eta lokatz guneeetan.

Iazko edizioarekin alderatuz, eguraldia ere lagun izan zuten txirrindulariek. Aterri izan zen arratsalde osoan zehar eta iaz kaz-kabarra eta euria izan bazen ere, aurtengoan ez zen hotz handiegirik izan larunbateko proban.

Arratsaldeko 16:00etan jarrita zegoen hitzordua. Ordubete lehenago hainbat eta hainbat txirrindulari frontoi inguruan ziren jada beraien bizikletak hartuta, batzuk izena ematera hurbildutakoak, eta besteak aurrez izena emandakoak. Irteera emate-rako, plaza txirrindulariz bete zegoen. Hortik aurrera, gozamaena batzuentzat, sufrimendua besteentzat. Irteera neutralizatua izan zuten Berostegi arte eta hortik aurrera Murumendiko bidezidor desberdinetatik pasa behar izan zuten.

Herriko pilotalekuan izan zen travesia honen amaiera. 22 eta 28 kilometroko 2 ibilbide izan zituzten aukeran eta bakoitzak aukeratutakoa burutu ostean bertara gerturatzen joan ziren. Bertan, hainbat pintxo zituzten zain, baita edatekoak ere. Horrez gain, opariak ere zozketatu zituzten partaide guztien artean.

Bukatzeko, nola ez, Ijittu Kirol Elkarteak bere eskerrik beroenak eman nahi dizkizue antolakuntzan lagundu zenuten guztioi.



Abenduaren 18ko jaialdia

Pasa den Larunbata honetan Itsasondoko Herri Eskolako komunitate osoak, guraso, ikasle zein irakasleek kaleak alaitu zituzten eskolako haurrek eskeini zuten ipuin kalejiran bitartez. Haurrak, herriko elkarte ezberdinetan plazaratu zituzten beraien lanak. Txikienek ipuinak antzeztu zituzten, zaharagoak berriz ipuinak kontatu eta irakurri. Bukaera emateko denak, herriko udaletxearen aurrean dantzatu eta herriko ludotekan Guraso Elkarteak eskainita pintxo ederrak dastatu zituzte. Itsasondoko haurrak badute indarra beraien herrian!



Ez gara palestinaz ari

Ander Lizarralde (Oñartzun, 1984) eta Unai Muñoa (Berrobi, 1982) bertsolariek, pianoa eta akordeoia jotzen dituen Imanol Kamiok (Hernani, 1959), eta Aitor Atxega (Larraul, 1968) gitarra-joleak eskainitako antzezlanaz gozatzeko aukera izan genuen Azaroaren 29an eskolako aterpera hurbildu ginenok. Ez zen ordea antzezipen huts bat izan; bertsoak, kantua, musika, antzerkia, poesia... primeran uztartu baitzituzten gure lau protagonistek.

Biluztea erabaki zuten entzulearen aurrean, minak, frustrazioak, konplexuak, desioak, amorruak eta beraien buruari barre egiteko nahia kanporatzeko eta konpartitzeko helburuarekin. Eta guzti hori mezu argi batekin, «adierazi gaitezen garen bezalakoak, gure bertute eta alde ilunekin».

Saioan hainbat gai jorratu zituzten, haurtzarora lekukotzat hartuz eta gizonkeriak agerian utziz gizon-tzeko bidea egin nahian, bere osotasunean, emakumeekiko parekide-tasunean, baina gizon izateari utzi gabe; askatasun pertsonala edo

aske izateko dituzten arazoei buruz hitz eginez.

Umorez saiatu ziren bestalde egoa, lotsaz gordea eduki ohi dugun zati hau azaleratzen; eta azkenik, beldurra, eten-gabe egon zen presente emanaldian, barrua biluzteko helburuan, nahitaezkoa delako emozio hau, eta bere eragina azaldu zuten, sakontasunez baina baita umorez ere.

Bi urtez aritu dira lanean proiektu honetan, eta otsailean hasi ziren jendaurrean eskaintzen, emanaldi hauek oso arrakastatsuak izan direlarik. Itsasondoko kasua ere ez zen gutxiagorako izan, eskolako aterpean ipinitako eserleku gehienak bete baitenituen; kaleko hotzetik ihesi, barneko goxotasunera.

Saioari amaiera emateko, herriko Irati Salinas gazteak ere parte hartu zuen, taula gainera igo eta mikrofona eskutan, antzezlanari bestelako punttu edo ukittu bat emanaz. Giro ederra sortu zen benetan eta kantu ederrez osaturiko antzezlan kurioso hau gozatzeko aukera ederra izan genuen bertaratutako guztiok.



Kantu afaria

Abenduaren 13an, Santaluzi egunean, Itsasondoko Arbelaitz elkarteak kantu afaria egin genuen. Pozez gainezka, Kultura batzordetik 40 lagunetik gora elkartzea lortu genuelako. Erronka bete zegoen, afaria mundiala, urtez urte hobetzen. Eta musikariak? A bai, eskerrak Aitor Furundarenari bere soinuarekin eta doinuekin gure eztarriak martxan jartzen lagundu zigulako. Intentzioan ez gara makalak, emaitzen inguruan zer esango dugu bada, entsaiatzen jarraitzea komeni zaigula; hori bai, etorkizuna gurea da. Datorren urtean gehiago, hobeto zaila da eta.



(lorezaintza gomendioak)

Ilex Aquifolium-Gorostia

Guztiok ezagutzen dugu zuhaitz peremnofolio txiki hau. 20 metro-tako altuera har dezake. Apaingarri gisa asko erabiltzen da duen hostotza ikusgarriatik, eta neguan bere baiak oso ikusgarriak izaten direlako. Hosto larrukarak izaten ditu, berde ilun kolorekoak eta obalo formakoak. Zuhaitzaren behe aldeko adarretan dauden hostoek arantzak izaten dituzte, baina goragoko adarretan dauden hostoak leunak izaten dira.

Gorostia landare dioikoa da, hau da, zuhaitz batzuk organo emedun loreak sortzen dituzte, eta beste batzuk, berriz, organo arrak dituztenak. Gure etxeko balkoian edo lorategian gorosti bat izan nahi badugu, landare emea aukeratu beharko dugu, baina kontuan izan beharko dugu, aldi berean, gertu landare ar bat ere egongo dela, polinizatu ahal izateko. Gaur egun badaude euren burua ernaltzen duten hibridoak.

Erabilera magikoak

Garai bateko Zeltentzat botere babesleak zituen zuhaitz sakratua zen gorostia. Etxean gorostia jarrita, zorte txarra uxatzen zela uste zuten, eta neguko solstizioko errituarekin, guk Gabonak ospatzen ditugun garaian, erabiltzen zen. Horregatik iritsi da ia gaurdaino Gabonetan gorostiak apaingarri gisa erabiltzeko ohitura, baina jendeak diskriminaziorik gabe gorostiak moztu izanaren ondorioz, gaur egun zaindutako espeziea da, eta debekatu dago gorostiak mozteak, baimendutako ekoizleen bidez ez bada.

Landatze baldintzak

Landatzea:

Udaberrian edo udazkenean egin daiteke, baina kokapena ongi aukeratzea komeni da, landatzea nahiko delikatuia izaten baita. Ez da lan asko eskatzen duen zuhaixka, baina landatzerakoan, turba apur bat gehitzea komeni izaten da. Guztiak gerizpetan edo ia gerizpetan bizi dira, nahiz eta hosto koloretsuak dituzten motakoek eguzkia behar izaten duten. Landare gogorra da ingurugiroaren kutsaduraren aurrean.

Mantenua:

Hesi modura erabiltzen denean, udaberrian moztu da; baina baina landatutako landareen kasuan, beharrezkoa bada, osorik kimatu daiteke, inongo kalterik eragin gabe. Oso poliki hazten den landarea da.

Gabonetako zuhaitz gisa erabiltzeko, gorostia etxearen kanpoaldean jarri behar da, ezinezko izango baitaio etxe barruko baldintzetara egokitzea. Beraz, balkoian, terrazan edo lorategian jarri beharko dugu.



Maixabel Garmendia
Izadia Loradenda. BEASAIN
943 88 14 40

(errezeta)

Fruitu lehorrez beteriko oilaskoa ardo goxozko saltsan

Osagaiak:

Oilasko bat (1,5-2 kilo bitartekoa)
Oilasko bularrak (300 gr)
Mahaspasak (20 gr)
Almendrak (20 gr)
Piku lehorrak (5 ale)
Ardo gozoa, (350 ml moskatel)
Tipulak (2 ale)
Baratxuria (2 ale)
Sukaldeko papera
Oliba olio (200 ml)

Prestakuntza:

Oilaskoa gatzatu eta hezurrak kendu. Ondoren, oilasko bularrak txikitu eta fruitu lehorrak gehitu, eta gatza eta ardo gozo pixka bat bota. Oilaskoa bildu errellenoarekin eta laberako paperarekin bildu. Labea berotu 200° tan, bertan eduki 35 minututan eta hozten utzi.

Tipulak eta baratxuriak txikitu eta kazuela batetan erregosi, eta gatza eta ardo gozoa gehitu. Erreduzitu duenean, bandejako zukua gehitu, eta turmixetik pasatu. Xerratan moztu eta barazki salteatu batzuekin eta patata purearekin batera aurkeztu.



Asier Arbilla
Arbeletxe jatetxea. LA SEU D'URGELL
www.arbeletxe.com
973 361 634

Liburuaren txokoa

Irakurzaletasun kanpaina:

Itsasondoko liburutegiak, irakurzaletasuna sustatzeko diru-laguntzak atera direla aprobetxatuz, ipuin kontaketa sorta antolatu du. Ekintza hauen bidez haurrak liburutegira gerturatu daitezten eta modu erakargarri batean liburuarekin harremanetan jar daitezten lortu nahi dugu.

Saioak urriaren 23an, abenduaren 5ean eta abenduaren 20an izan dira. Guztiak ere desberdinak ziren, baina atseginak haurrentzako, eta haur ugari parte hartu zuen. Ez daukagu dudarik oso gustura egon zirela.

Liburutegiaren erabilera eta arauak

Liburutegi berria dugu eta eroso. Hori dela eta, batez ere eguraldi txarra egiten duenean, jende ugari joaten da bertara, gehienak haurrak eta gurasoak. Horrez gain, ikasleak ere joaten dira azterketa garaian, ikastera. Lerro hauen bidez gogorarazi nahi dizuegu, GUZTIEI, liburutegiko arauak errespetatu egin behar direla, eta batez ere, azpimarratzekoak dira ISILTASUNA eta HAURRAK HELDU BATEKIN SARTU BEHAR DIRELA.

Proposamenak

Gogoratu nahi dizuegu, iradokizun kutxa bat dagoela bertan, eta gustura jasoko ditugula zuen proposamenak. Zalantzak edo kexak badituzue ere galdetu lasai.

Liburu berriak

Ekintza asko egin ditugu liburutegian urtean zehar, eta saiatu gara zuek proposatutako liburuak erosi eta merkaturatzen diren beste liburu interesgarriak ere zuen eskura jartzen. Aurtengo aurrekontua amaituta, hurrengo urtera begira proposamenak jasotzen ari gara. Adi-adi jarraitu ditugu Durangoko Azokan argitaratu diren nobedadeak. Urtarriletik aurrera erosiko ditugu liburu berriak, eta orain arte bezala, liburutegia geroz eta gehiago erabil dezazuen animatzen zaituztegu. ■



Egin zure proposamena

Espainiar Legediak udaletxe-tako balkoian bandera espainiarra eskegi behar dela agintzen du. Azken aldian Carlos Urquijo Gobernu Ordezkaría, jarraipen judiziala zorrotza egiten ari zaie udalei bandera espainiarra jar dezaten. Ez betetzearen ondorio judizial eta pertsonalak latzak direlarik.

Gogoz kontra bada ere eta beraien joan ez sartzearen bandera espainiarra jarri beharrean aurkitzen gara. Ideiaren bat badugu gure, herritarroi imajinazioa ibili eta inposaketa honi aurre egiteko ideia eta iradokizunak nahiko genituzke. Ez gara besoak gurutzaturik geratuko. Eman buelta batzu buruari eta ideien bat baduzu zure proposamena. Lurdesen dendan, Kaxintanen eta udaletxean izango diren buzoietan utzi dezakezu.



.....

.....

.....

.....

.....

.....



Kultur Agenda

URTARRILA

2-3 Gabonetako kanpaina

OTSAILA

7 Zine emanaldia gazteak

14 Mami lehiaketa

22 Ijito eguna

MARTXOA

8 Emakumeen eguna (bazkaria)

21 Antzerkia

28 Bertso afaria

Aldizkarian parte hartzea

Norbaitek aldizkarirako proposamenen bat badu, artikuluren bat idatzi nahi badu edo argazki, bidai, ikastaro, afizio edo hobby-ren baten inguruko informazioa badu edo besterik gabe zerbait kontatu nahi badigu jarri dadila gurekin harremanetan. 943 881170 telefonoan edo itsasondo2.0@itsasondo.net helbidean aurkituko gaituzue.

Telefono interesgarriak

Udaletxea

943 881 170

- Gizarte Langilea
- Udal Arkitektoa
- Epaitegia

Haurreskola

943 164831

Herri Eskola

943 887704

Arbel-Aitz Elkartea

943 881339

Lurdes Janari Denda

943 885236

Arrastoa Botika

943 882148

Medikuarenean Txanda Hartzeko

943 805800

Kaxintane Taberna

606 756551

Nautiko Taberna / Izaskun Hotela

943 880012

Izaskun Ileapaindegia

943 160285

Sasietia

943 161555

Traste Zaharrak

943 161590

Taxi (Ordizia)

943 881486

itsasondo 2.0

Herritiko Aldizkaria ((23. zk.)) Urtarrila-Martxoa 2013

Ale honetan parte hartu dutenak honakoak dira:

Ainara Urteaga
Aranzadi Elkartea
Asier Arbilla
Axier Bazaga
Belen Mendizabal
Danel Etxeberria
Ekaitz Arruti
Eskolako haurrak
Erkuden Mendizabal
Gorka Telleria
Haurreskolako Hezitzaileak
Iker Azurmendi
Iker Mendizabal
Iker Usón
Iratxe Ibarra
Itsasondoko Gazte Taldea
Iturritxiki Guraso Elkartea
Javi Diaz
Kike Fernandez
Maite Lasa
Maixabel Garmendia
Mikel Mendizabal
Rosi Noguera
Unai Agirre
Unai Aldasoro

itsasondo 2.0-k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Herritik kanpo bizi baldin bazara, eta, korreoz edo e-mailez, aldizkaria zure etxean nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan:

943 88 11 70

itsasondo2.0@itsasondo.net

Lege gordailua:
SS-297-2010

ISSN:
2171-5572

**GOGORAZTEN DIZUEGU
HURRENGO ALEA
MARTXOAN IZANGO
DUZUTELA ETXEAN**